


hh
hik hasi

Sonia Kliassi elkarrizketa
Ikasenpresa
Giza balioak lantzeko abestiak
Filosofo izan nahi dut handitzean
Ikasturte hasierako bilerak
'Gaztarri' erakusketa Mailoan
Aurelia Arkotxa



IRAULTZA DBH-N

Olololola

Zaburana, Tema Harat

leterio samarrak eta unortsuak emozioak ulertzeko,
eraberrak eta erde bideak eraberrak.

nahi
bizi
erregala



hasieratik jardunak
+ eta gaureratik abiatuak



TTDITTQUN
www.ttdittqun.com

AURKIBIDEA

GAIA / 10

IRAULTZA DBH-N

Hik Hasik apirilean Kataluniara antolatutako bidaia pedagogikoan Bigarren Hezkuntzan beste modu batera lan egiten duen institutu-eskola bat ezagutu genuen: Jacint Verdager. Ikasleak erdigunean jartzen dituzte, eta printzipio horrek lan egiteko modua aldarazi die. Ikasle prestatuak ateratzen dira, baina fokua ez dute edukietan, ikasleen ikasteko grinan baizik.

ELKARRIZKETA / 16

SONIA KLIASS

Haurren garapena eta heziketa dira Sonia Kliassen gaiak. Horien inguruko formazioa ematen dihardu han eta hemen, baita Hik Hasiren Haur Hezkuntzako hezitzaileentzako formazioan ere. Haurrak berezko duen mugimendua eta jolasa errespetatzeaz mintzo da, helduaren zeregina behatzea eta errespetatzea dela azpimarratuz. Gaur egun jolasak haurren bizimoduan lekua galdu duela dio, haurren kaltetan.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ane Aranburu, Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoz.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.
Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.
Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2019-05-16).
Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitetzke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

DBH-ko ikastetxe
“aspergarriak” eraldatzen

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA
Iraultza DBH-n

16 ELKARRIZKETA
SONIA KLIASS

“Haurrek pozik eta asetuta geratzeko, egunero gutxienez bi ordu inguru ibili behar dute jolasean libre eta etenik gabe”

24 ESPERIENTZIAK 1
Ikasenpresa

28 ESPERIENTZIAK 2
Giza balioak lantzeko abestiak

30 EKARPENAK
Filosofo izan nahi dut handitzean

34 GALDEIDAZU
MARTA QUINTAS
AMELIA BARQUIN

Familiekin ikasturte hasierako bilera: nola egin
“interesgarriago” denontzat?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA
‘Gaztari’ erakusketa
Mailoetan

42 ATZEKO ATETIK
Aurelia Arkotxa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



zerbitzua eta
lana euskaraz



Bigarren Hezkuntzako ikastetxe 'aspergarriak' eraldatzea posible da

editoriala

BIGARREN HEZKUNTZA 'SERIOA' DA, BAINA HORREK EZ DU ESAN NAHI DAGOEN EREDUA BERE HORRETAN MANTENDU BEHAR DENIK. BESTE MODU BATERA LAN EGIN DAITEKE.



Aurreko zenbakian Hik Hasitik Kataluniara egindako bidaia pedagogikoaz mintzatu ginen. Eta soka hari tiraka kontu berri bat dakargu. Izan ere, zenbaki honetako gaian han bisitatu genuen ikastetxe bati buruzko erreportajea dator: Sant Sadurní d'Anoia herriko Jacint Verdguer institutu-eskolari buruzkoa, hain zuzen ere. Zer du, bada, berezia ikastetxe horrek? Eraldaketa Bigarren Hezkuntzan ere egiten ari direla. Ohikoagoa da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan egitea aldaketak, haurraren erritmoa eta garapena errespetatzea, irakaslea haurraren bidelagun izatea, jolasari leku egitea, ebaluazio irizpideak aldatzea eta abar. Baina Bigarren Hezkuntzan... kasu! Gauza "serioa" da Bigarren Hezkuntza eta ez dago brometarako astirik: curriculum, edukiak, selektibitatea...

Jacint Verdguerrek, ordea, seriotasunik galdu gabe, hori guztia bigarren mailan jarri dute eta erdigunean ikasleak jarri dituzte. Hori da egin duten iraultza. Derrigorrezko Hezkuntza bukatutakoan ikasleak ikasteko teknikak

edukita ateratzea dute xede, autonomoak izatea, taldean lan egiten jakitea eta konpetentzia instrumentalak edukitzea, besteak beste. Baina hori dena bidean gozatuz, ikasi bitartean emozionatuz, gazteen begirada errespetatuz... Hezkuntza aspergarria ez izatea lortu nahi dute.

Horretarako, nola ez, funtsezkoa da begirada aldatuko duten irakasle konprometituak izatea klaustroan. Euskal Herrian bezala Katalunian, eta Haur Hezkuntzan bezala Bigarren Hezkuntzan, behin eta berriz errepikatzen den kexa da: hezkuntza proiektu bat aurrera eramateko ezinbestekoa da horretan sinesten duen eta lan egin nahi duen irakasle eta zuzendaritza taldea. Kataluniako Hezkuntza Legearen barruan hori bideratzeko urratsak ematen ari dira: ikastetxeen profilari lotutako lanpostuak eska ditzakete zentroek. Ikastetxeak gustura daude aukera horrekin, eta baliatzen dute. Eta baita "egonaldiak" egiteko aukera ere: hilabete batez beste ikastetxeetara joatea lanera. Euskal herritarrontzat bide hori irekiko balitz, ederra eta aberatsa litzateke Jacint Verdguerren hilabete bateko egonaldia egitea.

"Gaur egun oso modu okerrean konpetentzia bigun edo zeharkakoak esaten direnak, guretzat konpetentzia gogorak dira, oinarrizkoak: pentsamendu kritikoa, sormena, talde lana, euskalduntasuna, lanbidearekin konpromisoa, autonomia eta bizialdi osoko ikaskuntza..."

Arantza Ozaeta



SEASKAREN 37. IKASTOLA IREKIKO DUTE IRAILEAN ARBONA-AHETZEN

Seaskaren 37. ikastola zabaltzeko menturan dira datorren ikasturtean Arbona-Ahetzen. Iparraldeko ikastolen aldeko Herri Urrats jaiaren ostean egin dute iragarpena. Euska Irratiak hedabideak Arbona-Ahetzeko ikastolako guraso Ramuntxo Labati egindako elkarrizketan aipatzen duenez, oraingoz irailan Arbonan abiatuko dute ikasturtea, eta hastapenean ama-ikastola bakarrik izanen da. Labaten arabera, badira urte batzuk harremanetan direla bi herrietako administrazioekin baina gehiago itxaroten egon gabe, aurrera egitea erabaki dute. Eraikin egokiagoa bilatu artean, guraso batek utzitako lantegi ohi bat egokituko dute.

EGA AZTERKETAK AMAITZEA ERABAKI DU JAURLARITZAK

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan ez da berriz egingo EGA Euskara Gaitasun Agiriaren azterketa. Aurrerantzean, euskara maila hori frogatu nahi dutenek HABEren C1 azterketa egin beharko dute, EGAREN baliokidea dena Hizkuntzen Europako Marko Bateria-tuaren titulu eta ziurtagirien estandarrean. Bi tituluak maila berekoak izanik, "zerbitzuen bikoizketa" saihesteko eta horren "kalitatea hobetzeko" hartu du erabakia Eusko Jaurlaritzak.

AZKUE ETA SORTZEN LAGUNTZA BEHARREAN

Euskal komunitatearen laguntza behar dute Azkue Ikastolak eta Sortzen elkarteak. Eguraldi txarrak kalte egin zien Ibilaldiari eta Sortzen elkartearen jaiari; maiatzaren 19an ospatu ziren Lekeition bata eta Iruñean bestea. Bertan-behera geratu ziren antolatutako ekintza gehienak. Horrek diru galerak ekarri dizkie antolatzaileei eta laguntza eskatu diete herritarrei. Kontu-korrante zenbakiak zabaldu dituzte diru ekarpenak egiteko.

MURGILTZEAK EZ DU BERMATZEN FRANTSESA IKASTEA PARISENTZAT

Hizkuntza gutxituak murgiltze sisteman irakastearen kontra mintzatu da beste behin Frantziako Gobernua. Jacqueline Gourault ministroaren adierazpen polemikoen ondotik, Jean-Michel Blanquer Frantziako Hezkuntza ministroaren txanda izan da: murgiltze sisteman oinarritutako irakaskuntzaren bertute pedagogikoak zalantzan ezarri ditu, eta frantsesa ongi ez ikasteko "arriskua" dagoela nabarmendu du.

Eskolaren erreforma legea bozkatu zuen maiatzaren 21ean Frantziako Senatuak, eta bertan sortu zen hizkuntza gutxituen irakaskuntzaren inguruko eztabaida. Hezkuntza ministroa beldur da murgiltze sisteman ari diren ikasleek —Ipar Euskal Herriko ikastoletan, kasurako— euren hizkuntza gutxitua bakarrik erabiliko ote duten, eta frantsesa alde batera utzi. "Ikuspegi pedagogikotik, asko dago eztabaidatzeko. Izan ere, ezagutza aldetik ezin da esan ona denik ikasleak bultzatzea frantses hizkuntza ez ezagutzera eramango lituzkeen egoera batera", adierazi zuen, senatarien aitzinean. Hain zuzen ere, ministroaren iritziz, murgiltze ereduaren benetako funtsa aztertu behar da plan pedagogikoan.

Ministroaren hitzak ez dituzte batera ongi hartu hizkuntza gutxituen irakaskuntza bermatzen ari diren zentroetan. Seaska, esaterako, arazo handiak topatzen ari da Macronen gobernuarekin.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

IKASTOLEN ELKARTEAK ETA SEMENTE ESKOLEK ELKARLANERAKO AKORDIOA IZENPETU DUTE



Elkarlanerako Aliantza izenpetu zuten joan den maiatzean Ikastolen Elkarteak eta Semente eskola galiziarrek. 2011ko azaroan ireki zuten lehen Semente eskola Compostelan. Ondorengo belaunaldiei Galiziako kulturaren transmisioa egiteko helburuarekin, dagoeneko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako zortzi eskola abian dituzte. Gainera, beste hiru irekitzear dira.

Hainbat ezaugarri komun partekatzen dituztelako elkartu dira orain Ikastolen Elkarteak eta Semente eskolak, eta Elkarlanerako Aliantza honen bidez, besteak beste, honako ideiak izenpetu dituzte: hezkuntzan euskararen eta galegoaren normalizazioa lortzeko murgiltze ereduaren aldeko apustua egitea eta hori gizarteratzeko estrategia komunak garatzeko prestutasuna, bi nazioen hezkuntza sistema propioaren eraikuntzan aurrera egiteko ekimenen koordinazioa sustatzea, ikaskuntza eta hobekuntza ekintza bateratuak egiteko elkarren esperientzia pedagogikoen elkartrukea egitea edota hezkuntza materiala elkarbanatzea.

Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko lehendakariarentzat “pozgarria” izan da hainbat ezaugarri komun partekatzen dituen hezkuntza elkarte batekin elkarlanerako aliantza bat aurrera eramatea: “Estatu Frantseseko zenbait erakunderekin Seaskaren bitartez horrelako aliantzak sinatuta ditugu, baina Estatu Espainiarrereko batekin sinatzen dugun lehenengo elkarlanerako aliantza izan da hau”. Era berean, Tellituk azpimarratu duenez, “hezkuntza tradizionalaren eta egungo eredu publiko estatal-administratiboaren aldean, bestelako eredu bat defendatzen duten pertsona eta erakundeentzat bultzada eta inspirazio izatea nahiko genuke: herri ekimenez sortutako hezkuntza proiektu herrikoi, murgiltze ereduko, auto-gestionatu, irabazi asmorik gabeko eta laiko baten alde ari garenontzat”.

KRISTAU ESKOLAN GATAZKA KONPONDU EZINDA

Konponbiderik gabe jarraitzen du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako itunpeko ikastetxeetako auziak. Maiatzean greba egun gehiago egin dituzte ikastetxeetako langileek. Ikasturte hasieratik, 23 egunez egin dute greba. Patronalaren eta sindikatuen arteko negoziazioak blokeatuta daude.

Bien bitartean, gurasoek kezkatuta jarraitzen dute eta lan-gatazka amaitzea eskatzeko mobilizazioak egiten ari dira. Arartekoarekin ere bilera egin zuten urtarrilean itunpeko ikastetxe batzuetako gurasoek. Arartekoak gaiarekin zerikusia duten aldeei eskatu zien beraien esku dauden jarduera guztiak egin ditzatela konponbideak bilatzeko eta gogobetetzeko moduko akordioak lortzeko, oraingo egoera gainditzeko.

Langileen aldarrikapenetako bat da hamar urtez berri ez den hitzarmena gaurkotzea eta, hitzarmen berri horretan, enpleguari, soldatei, lan kargei, prekaritate egoeran dauden langileei eta lanpostu feminizatuei dagozkien neurri zehatzak aplikatzea.






EUSKAL HERRIAN ERREFERENTE DIREN PEDAGOGOEN LIBURUA ARGITARATZEAR DA HIK HASI

Euskal Herriko ikastetxeetako eguneroko jardunean eragina duten 25 autoreen —pedagogoak, psikologoak, maisu-maistrak...— berri jasotzen duen liburua argitaratzeaz da Hik Hasi.

Hezkuntzaren historian eragina izan duten eta uneotan ere ekarpenak egiten ari diren autoreen ideia nagusiak biltzen dira liburuan. Aniztasuna da nagusi autoreen artean, garai, toki, ildo pedagogiko... ezberdinetakoak baitira. Baina irizpide nagusi bat hartu da iparrorantz beroiek hautatzean: Euskal Herriko ikastetxeetan momentu honetan egiten ari diren praktika pedagogikoan eragina izatea, kontzienteki edo inkontzienteki, inplizituki edo esplizituki, zuzenean edo zeharka...

Ekainean aurkeztuko da liburua eta salgai jarriko da Hik Hasiren webgunean nahiz hainbat dendatan.



ORAINDIK IZENA EMAN DAITEKE HAUR HEZKUNTZAKO FORMAIZIOAN

Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan sakontzeko asmoz, haur txikiekin lanean aritzen diren hezitzaileei zuzendutako bi urteko formazioa eskainiko du Hik Hasi-k, zazpigarrenez. Ohi bezala, lehen ikasturtean Emmi Pikler-en oinarri teorikoak landuko dira. Bigarren ikasturtean, berriz, hainbat pedagogia berritzaileen ideiak jorratuko dira; Reggio Emilia, Waldorf eskola, pedagogia sistemikoa, Maria Montessori, heziketa berdea, Rebecca eta Mauricio Wild... Interesatuak oraindik izena eman dezakete ikastaroan eta horretarako www.hikhasi.eus webgunera jo beharko da. Informazio gehiago ere bertan izango dute.

HEIKE FREIREK PEDAGOGIA BERDEAREN INGURUKO FORMAIZIOA ESKAINIKO DU MADRILEN

Heziketa berdearen gainean ikasturte osoko formazioa emango du Heike Freire pedagogia berdean adituak, Madrilan. 2019ko urrian hasiko da eta hileroko modulo bat egingo da 2020ko ekainera arte. Besteak beste, ondoko edukiak landuko dira: gizakiaren harremana lurraekin; naturak jokatzen duen papera haurren hazieran; jolas librea naturan; aire librean eta modu autonomoan jardutearen garrantzia; natura nola erabili ikaskuntza bitarteko gisara; natura eta erresilientzia edota natur inguruneetan nola lagundu haurrei. Guztira, asteburuetako 9 saio presentzial izango dira eta horrez gain, ikasle bakoitzak tutorizatutako proiektu profesional bat garatuko du. Izen-ematea irekita dago www.heikefreire.com webgunean.



PSIKOMOTRIZITATE IKASTAROAN IZEN-EMATEA IREKITA

0 eta 6 urte bitarteko haurrekin lanean ari diren hezitzaileentzako psikomotritatearen inguruko formazioa eskainiko du Hik Hasi-k, 2019-2020 ikasturtean ere. 3. edizioa izango da eta ohi bezala, Mapi Urrestik emango du. Hiru alor teoriko landuko dira formazioan, saioetan elkarrekin-tzan arituko direnak: aukera berdintasuna, emozioen hezkuntza eta psikomotritate erlazionala. Matrikula hikhasi.eus webgunean egin daiteke.

HIZPIDE IZANGO DA

OHIKO IKASTAROEKIN BATERA, MAHAI-INGURUAK IZANGO DIRA HIK HASI-REN 20. UDAKO TOPAKETAK OSPATZEKO



Aurtengo Udako Topaketak bereziak izango dira Hik Hasi egitasmo Pedagogikoarentzat. Izan ere, aurtun 20 urte beteko dira Hik Hasi-k Udako Topaketak lehen aldiz antolatu zituenetik. Urteurrena dela eta, topaketa bereziak izango dira, irakasleen formazioa ospakizunarekin uztartuko delako. Bi berrikuntza nagusi izango dira:

1. **Hezkuntzaren inguruan hausnartzeko mahai-inguruak** antolatu ditu Hik Hasik uztailaren 1erako, "Hezkuntza errealitate berrietara jauzi" izenburupean. Eguna Juan Jose Ibarretxeren hitzaldiarekin hasiko da eta ondoren lau mahai-inguru izango dira. Partaideen artean izango dira Joseba Azkarraga Etxagibel, Jon Sarasua, Idurre Eskisabel, Arcadi Oliveres, Heike Freire, David Fernandez, Marga Iñiguez eta beste hainbat. Honako bi galdera hauetatik abiatuta, bakoitzak bere esparrutik eta esperientziatik ekarpenak egiteko aukera izango du:
 - 1) 10-20 urte barru nolako gizartea irudikatzen duzu? Zein izango dira premia nagusiak? Zeri erantzun beharko zaio?
 - 2) Horretarako zer-nolako hezkuntza behar da? Nola hezi behar ditugu haur eta gazteak?
2. Uztailaren 2tik 4ra **ohiko topaketak** egingo dira, baina ohi baino gehiago izango dira, partaideen eskura ahalik eta aukera zabalena jartzeko. Aurtun ohi baino ikastaro gehiago eskainiko dira; orotara 35, hain zuzen. Ikastaroetan zein uztailaren leko jardunaldietan matrikula egiteko epea irekita dago jada. Izena eman edo informazio gehiago kontsultatu nahi dutenek, www.hikhasi.eus webgunera jo dezakete.

ASKOTARIKO GAIAK HIZPIDE UEU-REN JARDUNALDIETAN

Udako Euskal Unibertsitatearen baitan, ohiko ikastaroez gain, hainbat jardunaldi izango dira uda sasoi betean. Besteak beste, klima aldaketaz arituko dira ekainaren 11n Bilbon, Humanitate digitalez ekainaren 20an Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan, edota Hizkuntzalari Euskaldunen IV. Topaketa egingo da ekainaren 25ean Iruñean. Besteen artean, Euskara Baturaren Ahoskera Zaindurako (EBAZ) arauen komunikazioa ezagutzea eta ahoskeraren i(ra)kasgarritasuna lantzea izango ditu helburu Iruñeko topaketak.

Uztailean beste bi topaketa eskainiko ditu Udako Euskal Unibertsitateak. Alde batetik, UEUK, EHUK eta Ikastolen Elkarteak antolatuta, 'Ikastolak eta Kooperatibismoaren inguruko I. Topaketa' egingo da uztailaren 8an Eibarren. Ikastolen mugimenduaren esperientzia aztertu nahi dute antolatzaileek, kooperatibismoaren eta ekonomia sozialaren ikuspegitik.

Bestalde, Jakin-en, Usurbilgo Udalaren eta UEUren elkarlanetik abiatuta, maitasunaren inguruko jardunaldia egingo dute uztailaren 11n eta 12an Usurbilen. Besteak beste, honako ideietatik abiatuko da jardunaldia: "Maitasuna politikoa da. Maitasunaren ideologiak geure buruak, geure harremanak eta geure etxe eta kaleak nola eraikitzen dituen. Saia gaituzen ikusten ea maitasuna beste modu batez ulertzeak bizikera eta bizileku bizigarriagoak eta berdinzaleagoak eraikitzea ekar lezakeen".

Informazio osoa www.ueu.eus-en.



Azken hamar urteotan 10.000 pertsona baino gehiago izan dira Sant Sadurní d'Anoiako (Katalunia) Jacint Verdaguer institutu-eskola bisitatzen, tartean Hik Hasik antolatutako bidaia pedagogikoko kideak. 2005az geroztik ia bi astetik behin dituzte bisitak. Bisita horien zergatia euren ikuspegia eta lan egiteko modua dira. Haur eta Lehen Hezkuntzan bezala, ikasleak eta haien interesak erdigunean jarriak dituzte Bigarren Hezkuntzan ere. Eta ikasleekin proiektuka lan egiten dute, ikasleak bizitzarako prestatzeko eta ikasi bitartean ez aspertzeko.

GAIA: IRAULTZA DBH-N

Eraldaketa posible da

Jacint Verdaguer institutu-eskola Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza dituen ikastetxea da. Horrek aukera ematen die proiektuaren oinarriak txiki-txikitik ezartzeko eta Bigarren Hezkuntza bukatu arte jarraipena emateko. Abantailatzat daukate ezaugarri hori. 2005ean hasi ziren hain erakargarria eta arrakastatsua den eraldaketarekin, eta garbi diote oraindik bukatu gabeko historia dela. “Esaldi hori oso garrantzitsua da” azpimarratzen du Josep Maria Esteve Jacint Verdaguerreko zuzendariak. “2005az geroztik ari gara lanean eraldaketa honetan. Bide luzea eta nekeza izan da, baina atzerabuelarik ez duena. *Confort* egoeran zeuden irakasleak, ezkorrak zirenak, gogoko ez zutenak, beldurrak zituztenak... horiek denak, behin aldaketa eginda, konturatu dira ez dutela atzera itzuli nahi. Ezinezkoa da. Zergatik? Lehen kezuka ateratzen zirelako gelatik, eta orain ez”.

Eraldaketa muinean ikuspegi aldaketa dago. Haur eta Lehen Hezkuntzan bezala, Bigarren Hezkuntzan ere ikasleek eta haien interesek erdigunean jarraitzen dute institutu-eskola honetan. Horregatik, zuzendariari eta ikasketa-buruari ohikoak ez diren gauzak entzuten zaizkie. Esate baterako, “edukietatik haratago doazen arloak lan-tzen ditugu. Edukiek gutxi samar kezkatzen gaituzte; gure lanerako erremintak dira, baina ez helburua. Nola lehia-tuko dute soilik eta eskusiboki edukietan zentratzen diren

ikastetxeek Google-ekin, National Geographic-ekin edo Youtube-rekin? Zein irakaslek daki horiek baino gehiago? Edukiak hor daude. Zer egingo dugu horiekin? Zertarako balio dute? Nola antolatuko ditugu? Nola erantzungo diegu ikasleen beharrei? Nola ulertzen dute ikasleek egunerokoa, beren inguruan bizi dutena? Hori da eskola batentzat inportanteena”.

Idea horri jarraiki beste pentsamendu bat dute: “Irakasleen lana prozesuak gestionatzea da. Eta nork kudeatzen du edukia? Lehendabizi sareak, gero taldeak eta ondoren ekar daitezkeen adituek. Jacint Verdaguerren apenas hitz egiten dugu edukiez. DBH amaitutakoan ikasle guztiek ikaste-ko teknikak eduki behar dituzte; autonomoak izateko eta taldean lan egiteko teknikak eduki behar dituzte. Konpetentzia instrumentalak (linguistikoak, matematikoak eta zientifikoak) eduki behar dituzte, ez edukiak. Esplicitzen, irakurtzen, komentatzen, eztabaidatzen, azaltzen, komunikatzen... jakin behar dute. Egiten jakin behar dute, eta egiten duten horrek helburu bat duela jakin behar dute. Zentro bezala hori geure gain hartzen badugu, helburuen % 90 badaukagu” dio zuzendariak.

Guraso berriei hezkuntza proiektua aurkezten dietenean, batzuek galdetzen diete ea modu honetara lan eginda selektibitatea gaindituko duten euren seme-alabek. Esteve

GAIA: IRAULTZA BIGARREN HEZKUNTZAN

Eraldaketa posible da

zuzendaria harrিতта geratzen da umeak 3 urte dituen galdera hori egiten dietenean, eta argi erantzuten die: “Ez dut zuen semea edo alaba ezagutzen, ez dakit selektibitate egitera iristen denean hura indarrean egongo den edo ez, ez zait piperrik inporta selektibitatea; zeren inportako balit, ikasketa prozesua desberdina izango litzateke. Selektibitatean pentsatzen badugu, prozesu osoa beste modu batera bideratzen da; ikasleengan pentsatzeari uzten diogu eta beraiei gutxi axola zaien helburu batean pentsatzen dugu”.

Ohikoa ez den esaldi bat gehitzen du Laura Becerra ikasketa-buruak: “Guk ikasturte amaieran bakarrik jartzen dugu nota, Departamentuak derrigortzen gaituelako. Baina ez dago ikaskuntza hobetzen duen inolako notarik; bai, ordea, ikaskuntza aspertzen duten notak”. Esteve zuzendariak gehitzen du: “Guk egunerokorako prestatzen ditugu, ez biharamunerako. Orainaldian bizi den sistema bat da gurea. John Dewey-k geure egin dugun esaldi bat esaten zuen: ‘eskolak ez du bizitzarako prestatzen, eskola bizitza da’. Kontzeptu hori oso garrantzitsua da, hezkuntza sistema beti biharamunerako pentsatua egon delako, eta ez momenturako. Orduan, horrek muga oso goian jartzen du, denek iritsi behar duten muga bat, denak berdina balira bezala, denek lan erritmo bera edukiko balute bezala, denei muga hori izugarri interesatuko balitzaie bezala... eta ondorioz, presionatu egiten dugu. Eta gure ikasleak zenbat eta gehiago presionatu, orduan eta aspertuago dauzkagu. Ikasten ikastea bizitza osorako ezaugarri iraunkorra izango den mundu batean, nola utz dezakegu hezkuntza aspergari bihurtzen? Esentzia den ikasteko gogo aspertzen?”. Laura Becerra ikasketa-burua ildo beretik mintzo da: “Ikastetxeok ez badugu gogo hori errekuuperatzen, ez badugu lortzen umeek parte hartzeko gogo bizia izatea, ikasteko grina edukitzea, zentroak itxi egingo dira”.

Edozein aldaketa egiten hasi aurretik, zentro guztiek beren printzipioak definitu behar dituzte argi eta garbi, horietatik eratorren baitira aldaketak. Hala, Jacint Verdaguerren zortzi printzipio dituzte zehaztuta:

1. Ikasketen erdigunea neska-mutilak dira. Begirada aldaketa behar da.
2. Huts-egitea onartzen da, bai ikasleena eta baita irakasleena ere. “Zeren hanka-sartzea beharrezkoa baita eboluzionatzeko”.
3. Lan globalizatua da konpetentzietan lan egiteko modurik onena. “Nor ateratzen da etxetik esanez ‘gaur egun guztian poemak egingo ditut’, egun horretan poemak tokatuko balira bezala? Beste inon egiten ez direnak egiten ditugu ikastetxeetan; bizitzan existitzen ez diren gauzak”.

4. Ikasketa soziala eta emozionala da berez. Hau da, gauza batek emozionatzen gaituenean, interes gehiago jartzen dugu.
5. Edukiak konpetentziak garatzeko erremintak dira, baina ez helburuak.
6. Ikaskuntza jakin-minetik abiatzen da, eta jakin-mina galderak egitea da. “Mendeak pasa ditugu erantzunak ematen neska-mutilek ezer galdetu aurretik. Guk inoiz ez dugu esplikitzen ikasleek galderak egin aurretik”.
7. Ikaskuntzan ez gaude bakarrik, jende gehiagok parte hartzen du: familiak, kanpoko adituak...
8. Esfortzurik gabe ez dago ikaskuntzarik. Eta esfortzuak ezin du oinarritu mekanizazioan, sistematizazioan eta asperduran.

Behin printzipioak ezarrita, horiek garatzeko oinarriak ezarri zituzten Jacint Verdaguer institutu-eskolan. Batetik, ebaluazioa eta kalifikazioa bereizten dituzte, ebaluazioa ikasleei tresnak ematea dela ulertuz beren ikaskuntza hobetzeko, ez nota jartzea. Bestetik, Delorsen konpetentzietan oinarritzen dira, baliagarritzat jotzen dituzte edukietatik haratago joaten direlako eta pertsonen hainbat alderdi lantzeko balio dutelako; hala nola, enpatia, emozioak, zorientasuna, egunerokoa, bizitza... Beste oinarri bat autonomia da, eta hanka-sartzeko baimena ematea eta konfiantza ematea da Verdaguerrekoentzat autonomia. Askotariko adimenak ere presente dituzte, “denok zarete onak zerbaitetan” esan nahi duelako eta horrek autoestimua igotzen laguntzen duelako. Eta azkenik, lan kooperatiboa funtsezkotzat jotzen dute, ikasle baten arrakasta inguruan duen taldeak baldintzatzen duelako.

Paperean idatzitako printzipio eta oinarriak aurrera eramaten hasitakoan, ordura arteko hainbat egiteko modu zalantzan jarri zituzten, besteak beste: eskola magistralak, etxerako lanak, talde homogeenak, ikasleei edota familiei etiketak jartzea, lan espazioak edo gelak, gelen antolaketak, ratioak, azterketak, diziplinan oinarritutako hezkuntza egitura, ikasleen eta irakasleen rola, ordutegiak, ikaskuntza erremintak... Beraz, hurrengo urratsa horiek birmoldatzen eta eraldatzen hastea izan zen.

Eraldaketa aurrera eramateko gakoak

Hasteko, inportanteena eta gehien kosta zaiena irakaslearen rol aldaketa izan da. Ikasleen aurrean dagoen irakasle izate-tik, ikasleen aldamenen dagoen irakasle izatera pasatzea. Beste modu batera egin behar da lan, “eta horretarako prest dauden irakasleak behar dira” dio irmo Laura Becerra ikasketa-buruak. “Eta hori izan da eduki dugun arazo eta

GAIA: IRAULTZA BIGARREN HEZKUNTZAN

zailtasunetako bat. Orain arte ikasturtero klaustro erdia aldatzen zen, tokatzen zitzaielako etortzen ziren eta batzuek ez zekiten nola lan egiten dugun, eta ezta interesatu ere”. Ildo beretik mintzo da Esteve zuzendaria ere: “Inork imajinatzen al du herrian dugun Freixenet cava enpresak bost langile eskatu, enpresara etorri eta langile horiek esatea ez dakitela cava egiten, beraiek Coca-Cola egiten dakitela eta Coca-Cola egiteko leku bat emateko? Imajinatzen duzue horrelako zerbait? Ez, ezta? Bada, hezkuntzan hori gertatzen da”.

Zorionez arazo horri irtenbidea emateko modua ireki zuen LEC Kataluniako Hezkuntza Legeak duela bost urte: “leku estrategikoak” deitzen zaien lanpostu batzuk daude, eta ikastetxeko hezkuntza proiektuaren araberako profila eskatzen da postu horietarako. Hasieran ikastetxe bakoitzak horrelako bi bakarrik eska zitzakeen, eta duela bi urtez geroztik plantilaren % 40-50 eska daiteke. Hezkuntza Departamentuak ikastetxeak eskatzen duen profila duten pertsonen zerrenda bidaltzen du zentroetara. Titulazioa duten eta baldintzak betetzen dituzten pertsonak izaten dira. Ondoren, zuzendaritzak elkarrizketak egiten ditu eta pertsona egokiena aukeratu. Lanpostu hori ez da lehiaketara aurkezten ”leku estrategiko” gisa baldin badago. Aukera honek asko laguntzen du klaustroa egonkortzen eta hezkuntza proiektuarekin konprometitutako irakasleak edukitzen.

Era berean, Becerra ikasketa-buruak dio taldean lan egiteak ere asko laguntzen duela irakasleak inplikatzeko: “Inork ez duenez bakarrik lan egiten, oso agerikoa da norbaitek lanik egiten ez badu. Orduan, gutxienez saiatu egiten dira taldean

integratzen. Ez dira goitik zuzendaritzakoak izaten lana nola egin behar den esaten dutenak, baizik eta lankideak. Eta desberdina da”.

Horrek guztiak, halaber, zuzendaritza talde sendo bat eskatzen du. Duela lau urte Kataluniako ikastetxe publikoetako zuzendarien % 40 nahierara aukeratuak ziren, ez borondatez. Horregatik, Katalunian ahalegin ikaragarria egiten ari dira zuzendaritza taldeak formatzeko, ikastetxeak ongi kudeatuko dituzten zuzendaritza taldeak prestatzeko: formazio ikastaroak, Departamentuak ordaintzen dituen masterrak, master pribatuak...

Bada beste funtsezko elementu bat ere: sarean lan egitea. “Guretzat aldaketa kualitatiboa beste ikastetxeekin eta unibertsitatearekin sarean lan egitea izan da” dio Estevek. Escola Nova 21 mugimenduaren barruan 28 ikastetxe sartu ziren, tartean Jacint Verdaguer; gero 30 gehiago; eta berriki 800 inguru. Besteak egiten ari direna ezagutzeko, partekatzeke eta abar balio izan die. “Horri lotuta duela bi urtetatik ‘egonaldiak’ egin ditugu; hau da, gure irakasleak beste zentro batzuetara joaten dira eta gurera beste batzuetatik etortzen dira. Hilabeteko egonaldiak izaten dira eta ordezko irakaslea departamentuak ordaintzen du. Horrek izugarriko aldaketa eragin du denbora gutxian, urteetan egin duguna baino askoz ere handiagoa” aitortzen du Estevek. “Hasieran itsas-argi bat ginela esan ziguten. Ez itsasontzietan argi egiten genielako, baizik eta bakarrik geundelako ekaitzaren erdian. Egun gutxi geratzen zitzaizkigula esan ziguten. Horrek hausnartuarazi egin zigun: ezin dugu bakarrik egin, inurri lana egiten ari gara. Sarea behar dugu”.



Espazioak ere eraldatu dituzte: gela handi eta bakar batean iritzia emateko eta entzuteko txokoa dute, meditatzeeko lekua, partekatzeeko espazioa, galderak egiteko eta azalpenak emateko arbela, orientazioa eta informazioa ematen duen pantaila handia, sareko informazioa duten ordenagailuak eta irakasle bat baino gehiago jarraipena egiteko.

Proiektuak motibazio iturri

Orain arte aipatutako guztia aurrera eramateko proiektuak dira ardatz Bigarren Hezkuntzako ikastetxe honetan. Proiektuak lan eginez lortzen dituzte euren helburuak. Hau da, DBH osoa bukatutakoan neska-mutilak arlo batzuetan jantziak izatea nahi dute; arlo batzuetan, ez gai batzuetan. Hortaz, galdera hau egiten dute: zein arlotan izan behar dute jantziak pertsona gisa, herritar gisa eta langile gisa? Galdera horiei erantzun nahian, kategoria batzuk egin zituzten; hala, adituak eta trebeak izan behar dute gai sozialetan, ingurumenean, komunitateari zerbitzuak ematen, ekintzailetasunean, arlo artistikoan eta osasun arloan. Kategoria horiekin lotutako egoerak konpontzeko gai izan behar dute DBH bukatutakoan.

Beste galdera bat ere planteatu zuten: zein arlotan izan behar dute oso trebeak bizitzan zehar ikasten jarraitzeko? Zein erreminta menperatu behar dituzte ikasten jarraitzeko? Eta hor hiru arlo ikusten dituzte: bata, informazioa bilatzen eta kudeatzen adituak izan behar dutela ikasi nahi duten hori ikasteko; bigarrena, ikerketa zientifikoan jantziak izan behar dutela, alegia gai bat konpontzeko zein prozedurek lagunduko dieten jakin behar dutela, ez hainbeste eduki zientifikoak; eta hirugarrena, trebeak izan behar dutela hizkuntza guztietan.

Abiapuntu horietan oinarrituta, bi proiektu mota lantzen dituzte Jacint Verdaguerren:

- 1. Ikasteko proiektuak:** arlo jakin bati lotutakoak, kompetentzia linguistikoak, matematikoak eta zientifikoak lantzerako bideratutakoak.
- 2. Proiektu globalizatuak:** arlo horietan sor daitezkeen bestelako interesei lotutako lan-proiektuak.

Batean zein bestean garrantzitsua da ikasleek helburua zein den jakitea: zertarako jakin behar dut nik hori? Ez zaie esaten “ikasi taula periodikoa” eta kito. Ez. Prozesua alderantzizkoa da: zer jakin behar dut nik kimikari buruz gero proiektuan erabiltzeko? Zer jakin behar dut proiektuan egokitu zaidan lana edo eginkizuna ondo egiteko eta arrakasta izateko? Eta hortik abiatuta, agian taula periodikoa ikasi behar dutela jabetuko dira.

Ikasteko proiektuak kompetentziak lantzeko

Proiektu hauen xedea oinarritzko ikaskuntzak finkatzea da, hau da, kompetentzia linguistikoak, matematikoak eta zientifikoak. “Esate baterako, robotika egiten dugunean, ikasle batek jakin behar du ordenagailua nola piztu, programak nola funtzionatzen duen, ikonoek nola funtzionatzen duten... Simplea den hori jakin behar dute gero gauza konplexuagoak edo nahi dutena eraikitzeko. Oinarri teoriko bat behar dute, eta horiek ikasten dituzte ikasteko proiektu hauen bitartez” dio Esteve. Arlo linguistikoan idazten, irakurtzen, hitz egiten... trebatu behar dute, eta horretarako aldizkari bat, youtubeko bideo bat, txikientzako ipuinak eta antzekoak egiteko proiektuak lantzen dituzte.

Proiektu globalizatuak, ikasiz emozionatzeko

Proiektu globalizatuak irekiak edo itxiak izan daitezke, hau da, gaia guztiz irakasleek proposatzen dutena edo ikasleei proposatzen uzten zaiena. Laura Becerra ikasketa-buruak dio lehen lan-proiektuak itxiagoak zirela, “baina duela pare bat urte konturatu ginen zenbat eta irekiagoak izan, motibazio gehiago sortzen dela, emozio gehiago gauzak deskubritzeko, eta nahi duten neska-mutilei haratago joateko espazioa ematen zaiela”. Hori dela eta, irakasleek galdera orokorrak planteatzen dituzte, eta gero, horien barruan ikasleen proposamenei irekitzen zaie atea. Esate baterako, “orain, bi astetan kontzientzia sozialari buruzko lan-proiektu bat egingo dugu: zer landu nahiko zenukete kontzientzia sozialaren arloan?”. Edo beste bat komunitateko zerbitzuen inguruan egin behar zuten, eta proposamen ugari atera ziren ikasleengandik: bide bat egitea herriko lakura iristeko, odol emaile izatea, zaharrei laguntzea...

Projectes per aplicar	Projectes per aprendre	Projectes per aprendre	Projectes per aplicar	Projectes per aprendre
Projectes per aplicar	Projectes per aprendre	Projectes per aprendre	Projectes per aplicar	Projectes per aprendre
Projectes per aplicar	Projectes per aplicar	Projectes per aplicar	Projectes per aprendre	SI
Projectes per aprendre	Projectes per aplicar	Projectes per aplicar	Projectes per aprendre	SI
tutoria/aga	Projectes per aprendre	E. Fisica	Música	Projectes per aplicar
tutoria/aga	Projectes per aprendre	E. Fisica	Artística	Projectes per aplicar
	Comissions, clausures o formació			

GAIA: IRAULTZA BIGARREN HEZKUNTZAN

Marteko proiektua urratsez urrats

1. Hasierako galdera: nola biziraun dezakegu Marten?

Ikasle bakoitza ikertzen eta informazioa bilatzen hasten da, hau da, galdera horren testuingurua ikertzen: arnasa hartu behar dugu Marten bizirauteko, ariketa fisikoa egin, elikatu... Ikerketa lan hau indibiduala izaten da. Autonomia lantzeko une aproposa izaten da. Bakoitzak bere informazioa lantzen du, gero gainerakoei proposatzeko: “nik ikusi dut, nik ikertu dut...”. Horrela sartzen dira gaian, eta ez irakasleak “goazen lanean hastera” esanez.

2. Taldeka jarri eta talde bakoitzak behar edo bloke horietako bat hautatu eta garatzen du. Gaiaren araberrako ezagutzak ikasi behar dituzte, 15 egunen ondoren ekintza batzuk egiteko:

- Arnasketaren gaia hartu dutenek oxigeno makina bat egin behar dute Marten arnasa hartzeko. Orduan, hainbat alderdi aztertu behar dituzte: zer behar dugun arnasa hartzeko, Marten oxigenorik badagoen ala ez ikertu; ez baldin badago, oxigenoa sortzen duen makina bat egin beharko dute, horretarako oxigenoa zer den ikertu beharko dute, nola dagoen konposatua, nola sor dezakegun oxigenoa, zer-nolako makinak lortuko duen oxigenoa sortzea...
- Elikadura tokatzen zaion taldeak ikertu beharko du landareek zer behar duten bizitzeko, nola elikatzen diren, nola lortuko dugun ura eta abar.
- Talde bati galdera bat sortu zitzaion: nola aukeratzen dira Martera joan behar duten pertsonak? Zein ezaugarri eduki behar ditu astronauta batek Martera joateko? Eta hala, talde honek proba fisiko eta psikologiko batzuk prestatzea erabaki zuen, Martera joan behar zuten

guztiei egiteko eta proba horiek betetzen ote zituzten ikusteko. Ezaugarri fisikoez gain psikologikoak ere kontuan hartzen dira: fisikoki forman egotea garrantzitsua bada, ariketa fisikoa egin beharko da; taldean lana ondo egiten ez duen pertsona baldin banaiz, beti kexatzen ari baldin banaiz edo oso indibidualista baldin banaiz, agian ez naiz Martera joateko prestatua egongo, zeren denbora asko egon beharko baitugu elkarrekin leku txiki batean... Irakasleak konturatu gabe, talde lana eta gatazken kudeaketa lantzen hasi ziren.

Proiektu hauek duten gauza interesgarri bat zera da Bece-rraren ustez: “Denei ematen die eztanda une bat izateko aukera, arrakasta une bat, eta emozionatzen dituen zerbait topatzeko aukera. Marteko proiektuarekin, adibidez, zientziarekiko jakin-mina sortu zaie ikasle batzuei, ‘zientzialari zoro’ batzuk baditugula konturatu gara”. Horretaz jabetzeko eta hori gertatzeko, garrantzitsua da espazio horiek edukitzea, horiek gabe nekez deskubritu baitezakete ikasleek zer gustatzen zaien edo zer emozionatzen dituen.

3. Azalpena: taldekako lanaren ondoren, irakasleek teoria azaltzen diete ikertu duten hori sendotzeko. Baina lehenbizi beraiek aritu dira lanketa egiten. Ohiko eskola batean irakaslea gelara sartu eta azalpena ematen hasiko litzateke, eta gero ariketak eginaraziko lizkieke esandakoa sistematizatzen.

4- Laborategira joan eta esperimenduak egitea da hurrengo fasea, alderdi teorikoa praktikorekin lotuz. Kasu honetan, espazio-ontzi bat eta oxigenoa sortzeko makina bat egin dituzte, besteak beste.

5- Azkenik, azalpenak egiten dira proiektua bukatzeko.

Beste ordutegi bat

DBHko ordutegian ikusten da proiektu globalizatuentzat 10 ordu dituztela astean, beste horrenbeste ikasteko proiektuentzat, eta bi ordu askotariko adimena lantzeko proiektuentzat. Aurten, adibidez, DBH 3ko 60 ikasleak proiektu globalizatuetan denak elkarrekin egoten dira 3 irakaslerekin. Ikasteko proiektuetan 60 ikasleak 20ko hiru taldetan banatzen dira kompetentzia linguistikoak, matematikoak eta zientifikoak lantzeko. Talde heterogeneoak dira hirurak eta txandatu joaten dira, bakoitzean irakasle batekin. Irakasleek taldeka egiten dute lan eta talde bakoitzak bi orduko bilera izaten du. Lehen DBHko maila guztietan ibiltzen ziren irakasle taldeak, baina orain saiatzen dira mailaz asko

ez aldatzen eta egoten diren mailan ordu gehiago jarduten. “Horrela, tutore batzuk 15 ordu egoten dira beren ikasleekin eta hori funtsezkoa da, hartara ikasleak ezagutu egiten baitituzte eta hainbat egoerei aurrea hartu eta gatazka saihesten baitituzte” azaltzen du Becerrak.

“Hasieran kosta egin zitzaigun planteamendu honetara ohi-tzea. ‘Egiten ari garen proiektu hau zer da zientifikoa, soziala...? Nork egingo du?’ Ni Fisikakoa naiz...’. Orduan, irakasleak gai zirela konbentzitzeko beti gauza bera esaten genien: ‘zu Katalaneko irakaslea zara eta askotan esaten diezu gurasoei semearekin edo alabarekin esertzeko eta laguntzeko. Eta zuk, Fisikakoa gauza bera. Eta Ingelesekoak berdin. Eta Matematikakoa berdin. Orduan, gurasoak hori dena egiteko gai baldin badira, gu ez?’ Eta horrek pentsarazi egiten dizu”.



“Haurrek pozik eta asetuta
geratzeko, egunero gutxienez bi
ordu inguru ibili behar dute jolasean
libre eta etenik gabe”

ELKARRIZKETA:

SONIA

KLIASS

PSIKOLOGOA

Sao Paulon (Brasil) jaio eta hazitakoa da Sonia Kliass psikologoa. 1992an iritsi zen Gironara eta bertan jarraitzen du bizitzen. Batere akademikoa ez den ibilbidea egin du, esperientziatik ikasiz, eta hori erakusten dihardu gaur egun han eta hemen ematen dituen formazio saioetan, besteak beste Hik Hasiren Haur Hezkuntzako hezitzaileentzako formazioan. Haurren garapena eta heziketa gaiak lantzen ditu, batez ere 0

eta 7 urte bitarteko haurren zentratuz eta Waldorf pedagogia eta Emmi Piklerren ikuspegia oinarritzat hartuta. Haurrek berezkoa duten mugimenduaz eta jolasaz hitz egin du elkarrizketan, eta horren aurrean helduak hartu beharko lukeen jokabideaz. Kliassen ustez, berezkoa duten horretan errespetuz behatu eta ikusten duenarekin liluratu besterik ez du egin behar helduak; eta alderdi sozialean, berezkoa ez dutenez, eredu ona izan.



“Kontzientziarekin heztea” aipatu izan duzu zure idatzietan. Zer esan nahi du zuretzat kontzientziarekin heztea?

Batez ere saiatzen naiz helduek haurrak diren bezala ikusten: zer diren, nolakoak diren, zein prozesu egiten dituzten eta abar. Benetan dagoen horretan kontzientzia jartzea da, eta ez egotea teoria, ideia edo kontzeptu batzuen eskizian edo eraginpean.

Zer izango litzateke, senari kasu egitea?

Beno, sena baino gehiago da. Benetan behatzea da, eta zaila da, ez da berez ateratzen. Izan ere, dena ideia, pelikula edo istorio batzuen arabera ikusten dugu; ikasi ditugun teoriak, ikusi ditugun ereduak, bizitu ditugun esperientziak... hor baitaizkagu. Orduan, horiek denak alboratu eta aurrean ikusten dugun horretan kontzientzia jartzea da, norberak zer duen ikustea, horrek nola baldintzatzuten gaituen konturatzeta eta benetan dena ikusten ikustea. Hori da nik bultzatu nahi dudana, kontzientzia hori bultzatu nahi dut. Eta horreta-

rako oso baliagarriak zaizkit Waldorf pedagogia eta Emmi Piklerren lana, dagoenaren behaketaren gainean erakitako lanak direlako.

Zer da Waldorf teoriatik zein Emmi Piklerren ideietatik hartzen duzuna?

Biak osagarriak dira. Emmi Plikerrak oso lan sakona egin zuen, 0 eta 3 urte bitarteko haurrekin batez ere. Eta Waldorf teoriak gizakiaren beste ikuspegi bat gehitzen du, filosofia eta ikuskera espiritual batetik ulertzen du gizakia. Waldorf pedagogiak 0-7 urte bitarteko hezkuntzaren gainean egiten duen proposamen praktikoa erabat uztargarria da Emmi Piklerren ikusten dudanarekin. Zeren biek fenomeno bera behatzen dute, bakoitzak bere ikuspuntutik, baina gauza beraz hitz egiten dute: haurraz. Haurrak egiten duena behatzen dute.

Emmi Piklerrek eta haren institutukoek haurrak egiten duena behatzen dute: mugitu egiten dela, jolastu egiten dela, zer behar duen helduen harremanetik eta abar. Eta horretan sakontzen dute. Waldorf pedagogiak

ez du hainbeste zehazten 0-3 urte bitarteko haurraren eboluzioa, batez ere 3 urtetik aurrerakoa lantzen du. Baina Steinerrek ere aipatzen zuen zein garrantzitsua den umeei prozesuak euren kabuz egiten uztea, esku hartzerik gabe, zein garrantzitsua den mugimendua, jolasa eta abar. Orduan, hazia hor dago, ereinda dago.

Helduaren zeregina behatzea da. Nola jokatu behar du helduak behaketa horretan?

Kosta egiten da. Orain arte beste kontzeptu batzuk nagusitu dira: irakatsi egin behar diegula, estimulatu egin behar ditugula, zenbat eta lehenago hobeto, egiten ez badugu denbora pasako dela eta aukera galduko dugula... Konfiantza falta da: haurrek badakitenaren konfiantza.

Alde batetik, haurrek mugimendua eta jolasa berezkoak dituzte, berez dakite mugitzen eta jolasean, atera egiten zaie. Heldu gisa ez da ezer egiten behar. Manipulatzeko objektuak eman, hori bakarrik. Hortik aurrera, behatu eta egiten duten guztiarekin liluratu.

Baina beste aldetik, arlo sozialean ez da hori gertatzen. Hori ez dute berezkoa eta ez dakite zer egin. Helduengandik ikasten dute. Beraz, prozesu horretan bai lagundu behar zaiela alderdi soziala garatu dezaten. Esate baterako, haurraren garapenaren etapak eta gaitasunak ezagutu behar ditu helduak, jakin behar du umeez euren bulkadak atxikitzen ikasten dutela, enpatia gaitasuna garatzen dutela, zer eskatu diezaioken umeari, zer irakatsi behar duen, nola zuzendu haurraren gaitasuna, nola kudeatu umeak “ez” esaten duenean, nola kudeatu espero gabeko erantzuna ematen duenean, nola kudeatu haurren arteko gatazkak eta abar.

Jolasa eta mugimendua elementu oso garrantzitsuak dira haurraren garapenean. Zer balio ematen diezuek?

Haurrek egin egiten dute. Egin. Zer egiten dute? Gauzak. Eta mugitu egiten dira. Mugitu egiten dira eta gauzak egiten dituzte. Mugimendua eta jolasa deitzen diogu horri. Oinarri-oinarrizkoa dena. Ez dakite ezer egin gabe egoten. Hori da umeez 7 urtera arte daukaten bizi-esperientzia. 7 urtetik aurrera gero eta gaitasun handiagoa dute geldirik egoteko edo ezer egin gabe egoteko.

Orduan, egite horretan, jolasean aritzen dira. Hasieran objektuak manipulatzeko hasten dira: begiratzen, hartzen, uzten, esperimendatzen... mila gauza egiten dituzte. Horixe da Emmi Pikler institutuan behatu zutena: objektu bat manipulatzeko 70 modutik gora deskribatu zituzten. Mugimendua eta jolasa umeen funtsezko esperientzia dira. Azken batean, jolasa mugimendua da, mugimendu orokorra, bai motrizitate fina eta baita motrizitate lodia ere, eskuen koordinazioa, begien koordinazioa, ahoarena... Horregatik, hasieran jolasa mugimendua da.

Gero, egite hori gero eta konplexuagoa bihurtzen da, eboluzionatuz joaten da. Eta hor hasten da jolasaren garapena: manipulatzeko hasten dira, gero imitatzen, eta gero irudikatzen. Hori da haurrek bizitzeko duten modu nagusia. Horrela ikasten dute, horrela esperimendatzen dute, horrela

barneratzen dituzte esperientziak eta horrela prestatzen dira ikasketetarako. Esate baterako, esfinterren kontrolaren kasuan garbi ikusten da. Nola hasten dira? Horretara jolastuz: orinalean eseri eta txiza edo kaka egiten ari direnaren itxura egiten dute, panpinak jartzen dituzte orinalean txiza egiteko eta abar.

Imitazioa aipatu duzu. Zer ikasten dute imitatuz?

Imitazioa ere haurra prestatzen edo hezten duen elementu bat da. Inguuruan duen guztia imitatuz trebatu egiten da haurra. Helduei, beste haurrei, animaliei... imitatzen die haurrak. Erreminta zoragarria da ikasteko. Eta arlo horretan, helduok imitatzen gaituztela jakinik, helduok eredu onak izaten ikasi beharko genuke.

Zer da eredu ona izatea?

Haurrak ez du dena imitatzen, baina egiten dugun guztia imitagarria izan daiteke, guztia: esaten duguna, nola mugitzen garen, keinuak, jarrerak... Eta baita ezaugarri moralak ere: gezurretan ari garen edo ez, engainatzen dugun edo ez... Hori guztia imitatu dezakete. Beraz, hasieran aipatu dudana kontzientzia lana sartzen da hor.

Jolasaren kasu zehatzari dagokionez, zentzumenekin inguruan duena hautematen du haurrak, eta ondoren mugimenduarekin eta jolasarekin barneratu egiten du. Helduok egiten duguna imitatzen du eta horrek jolaserako balio dio.

Orduan, bada helduok normalean aintzat hartzen ez dugun gauza bat: zer egiten dugu gure lanari dagokionez? Hau da, zer imitatu eta integratu dezakete euren jolasean gure lanetik edo guk egiten dugunetik? Heldua zenbat eta lanpetuagoa egon, zenbat eta lan gehiago egin, orduan eta elikagai interesgarriagoa edukiko du haurrak bere jolaserako. Lana esaten dudanean, haur txiki batentzat lana zerbait egitea da. Hau da, lan intelektualak ez du balio, haurraren begietatik ikusita heldua ez baita ezer egiten ari lan intelektualak egiten ari denean.

Une batean haurrak aldaketa kognitibo bat egiten du eta orduan, imitatetik irudikatzerara pasatzen da.

“Haurrek mugimendua eta jolasa berezkoak dituzte, berez dakite mugitzen eta jolasean, atera egiten zaie. Heldu gisa ez da ezer egin behar. Manipulatzeko ari badira, manipulatzeko objektuak eman, hori bakarrik. Hortik aurrera, behatu eta egiten duten guztiarekin liluratu”

“Arlo soziala, aldiz, ez dute berezkoa eta ez dakite zer egin. Helduengandik ikasten dute. Prozesu horretan bai lagundu behar zaiela”

“Zer imitatu dezakete euren jolasean gure lanetik edo egiten dugunetik? Heldua zenbat eta lanpetuagoa egon, orduan eta elikagai interesgarriagoa edukiko du haurrak jolaserako”



Irudimena. Nola garatzen da irudimena?

2 urteko haur batek harri bat ikusten duenean ukitu egin dezake, ahoan jarri, zer zapora duen ikusi, zein usain duen ikusi, zenbat pisatzen duen, nolako testura duen, nola mugitzen den, zein soinua egiten duen... Mundua nolako den ezagutzen ari da esperientzia horren bitartez.

Une batean, ordea, harriari begiratu eta ez du harria soilik ikusten, harriari ez dagokion zerbait proiektatzen du. Adibidez, harria txokolatzeko pastela dela. Eta pastela egiten ari dela jolasten du. Eta beste batek galdetzen dio, “zer daukazu jateko?” eta harria seinalatuz “txokolatzeko pastela” esaten dio. Irudimena sartzen da jokoan. Eta hori adin batetik aurrera gertatzen da. Behin bi neska ikusi genituen janaria prestatzera jolasten

eta bata besteari zera galdetu zion: “zer da hau?”. 2 urteko nire semeak “harri bat” esan zidan aldemenetik. 2 urterekin ezin zuen beste ezer ikusi; neskek, ordea, harriaz gain txokolatzeko pastela ikus zezaketen.

Hor hasten da aldaketa, irudimenezko jolasa. Irudiak proiektatzen hasten dira eta objektuei ez dagozkien gauzak ikusten hasten dira. Neskek bazekiten haiek harriak zirela, baina gai ziren harri haiek txokolatzeko pastelak zirela irudikatzen.

Zer garrantzi du irudimenaren lanketa horrek?

Garrantzitsua da, irudiak sortzeko gaitasun hori delako pentsamendu ororen oinarria. Pentsatzeko, irudia sortzeko gai izan behar duzu. Esaten dute irudikatzen gaitasun hori 2 ½-3 urtetik 7 urtera bitartean garatzen

dela batez ere. Hori da adin kritikoa. Horregatik, Waldorf pedagogiak garrantzi handia ematen dio ahalik eta gehien garatu dadin, hori baita une nagusia.

Zer gertatzen da 7 urtetik aurrera?

Irudikatzen gaitasuna garatzen jarraitzen du haurrak, baina ez da une kritikoa. Beti irudikatu dezakegu, baina 7 urterekin haurra munduaren ikuskera objektiboagoa edukitzen hasten da. Distantzia bat hartuko balu bezala da. 3-4 urteko haurrak irudimenezko esperientzia horretan bete-betean daude. 7 urterekin, ostera, hainbat gauza galdetzen hasten dira: “Olentzero gau bakar batean etxe guztietara iristen dela...?”.

Jolasera itzuliz, zer iritzi duzu jostailuei buruz?

Haurrak jolas egiteko materialak behar ditu: manipulatu ari denean, manipulatzeko materiala; imitatzen ari denean, imitatzeko balioko dion materiala; irudikatzen ari denean, irudikatzen balioko dion materiala eta abar. Haurrak manipulatzeko materialik ez baldin badauka, ez du aukera hori garatuko. Beraz, objektuak behar ditu. Baina nolako objektuak?

Pikler-Loczy institutuan egindako manipulazioaren garapenaren ikerlanak hori jakiteko balio digu. Behatuz konturatu ziren haurrak une jakin batean objektu bat beste baten barruan sartzen duela, edo bata bestearen gainean jartzen dituela, edo elkarrekin erlazionatzen dituela. Orduan, badakigu gutxienez bi objektu behar dituela. Beste une batean objektu bat beste baten barruan sartzen aritzen da; orduan, badakigu objektu txikiagoak barruan sartzeko moduko objektuak behar direla, handixagoak, alegia. Baina ez dute zertan dendan erositako jostailuak izan. Sukaldeko ontziek, tuperrek, gortinen zirrindolek... balio dezakete. Esate baterako, aipatu institutuan ematen zuten lehen objektua zapi bat zen. Haur batek zapi bat eskuetan hartu dezake, ahora sartu, begiratu, bota eta abar. Nik kakorraz-zapiak egiten ditut eta oso erabilgarriak dira, oso emaitza onak ematen dituztela ikusi dut. Instagramen eta dena argitaratu

ditut argazki batzuk: haur bat lau hilabeterekin zapiarekin jolasten eta haur bera 4 urtekin zapi berberarekin jolasten. Eta 6 urteko arreba ere zapi berberarekin jolasten. Objektu onak baldin badira, behin eta berriz erabil daitezke, jolasteko gaitasuna garatuz doan heinean.

Jostailuak eta jolasteko objektuak bereizten dituzu, beraz. Ez dira gauza bera.

Garrantzitsuena objektuari ematen zaion erabilpena da. Jostailu bat jolas egiteko objektu ona izan daiteke, baina jostailu ez den objektu bat ere bai, lehen aipatu ditudanak, adibidez. Gainera, jostailuak dendan erositakoak direla pentsatzeko joera dugu, baina egin ere egin daitezke, erosi gabe. Eta polita da, gainera, jostailuak egitea, bai helduarentzat eta bai haurarentzat. Hasteko, zerbait egiten dugulako, eta hori ona da. Bigarrenik, zerbait egiten ikusten gaituztelako, eta hori ere ona da. Eta hirugarrenik, objektuak nola egiten diren ikusten dute, eta objektuak balio berezi bat hartzen du.

Haurrek behar adina jolas egiten al dute?

Lehen gehiago ibiltzen ziren jolasean. Gaur egun haur batzuk oso gutxi aritzen dira jolasean, jolasa ez den beste gauzekin okupatuta daudelako. Adibidez, eskolarekin. Eskolan, 0-7 urte artean, lanean aritzen dira. Eskolan jolas gutxi egiten dute. Badaude 3 urterekin haurrak eserita jartzen dituzten eskolak, hizkiekin eta zenbakiekin hasteko, ikasteko lana egin behar dela sinesten dutelako. 5 urterekin denak emanda aritzen dira lanean, ez dago jolasarentzako lekurik haur-eskola horietan. Izena bera ere eskola da, pentsa. Zergatik deitzen zaio eskola?

Egia da gero eta kontzientzia gehiago hartzen ari garela eta jolas librea nagusi duten proiektu gehiago daudela 3-6 etapan. Halere, asko kostatzen da pentsamoldea aldatzea. Jolasean ibiltzen dira, bai, baina helburu batekin edo gero marrazki bat egiten dute zer egin duten ikusteko. Zerbait produktiboa eduki beharra daukagu lasai gelditzeko, zerbait ikasten ari

direla ikusteak lasaitasuna ematen du oraindik. Badirudi ez dugula erabateko konfiantzarik haurrengan.

Zer leku du jolas libreak 7 urtetik aurrera?

Adin horretan beste aldagai bat sartzen da: arauak dituzten jolasak. Horrek hartzen du garrantzia. Eta horrekin batera, jolas librea behar dute jolas soziala garatzeko. Lehen haurrak 8-9 urterekin futboleak, pilotan, soka-saltoan eta abarretan jolastera ateratzen ziren kalean. Jolas egiteko elkartzen ziren eta lehendabizi arauak erabakitzen zituzten, eta nola bete arau horiek. Arauak betetzen ez baziren, eztabaidatu egiten zuten. Batzuetan denbora gehiago pasatzen zuten eztabaidan jolasean baino. Haurrak izugarri ibiltzen ziren jolasten adin horietan. Batez ere koadrilan, kalean, auzoan... Eta hori ere garrantzitsua da. Adin honetan irudimenezko jolasen ordez taldeko jolasek hartzen dute garrantzia. Beste jolas mota batzuk dira. Adibidez, korroan asko ibiltzen ziren lehen eta orain galdu egin da jolas hori. Korroan ibiltzea oso jolas aberatsa zen: abestiak zeuden, mugimendua, zerbait esan behar zen, txandak errespetatu behar ziren... Eta hori ez da 5 urteko haurrentzako jolasa, 8-10 urtekoentzat baizik. 12 urtera arte umeez horrela ibili beharko luketeela jolasean esaten da.

Eskolaz kanpoko ekintza antolatuen edukitzeak zer-nolako eragina du jolas libreak?

Eskolaz kanpoko ekintzek jolasaren bat-bateko indarra hiltzen dute.

Eta gaur egun hain presente ditugun teknologia berriak?

Hilgarriak iruditzen zaizkit. Izugarriko eragina dute. Haurren prozesu naturalean borondatea mugimenduaren eta jolasaren bitartez praktikatzeko da. Teknologia berriek borondate hori hil egiten dute.

Baina hor daude eta ezin zaie uko egin. Nola elkarbizi daitezke, zure uestez?

Berrero ere kontzientzia lana egitean datza gakoak. Inor ez dago teknologia

“Mugimendua eta jolasa umearen oinarriko esperientziak dira. Hori da haurrek bizitzeko duten modu nagusia. Horrela ikasten dute, horrela esperimentatzen dute, horrela barneratzen dituzte esperientziak eta horrela prestatzen dira ikasketetarako”

“Lehen gehiago aritzen ziren jolasean. Gaur egun haur batzuk oso gutxi aritzen dira, jolasa ez den beste gauzekin okupatuta daudelako. Adibidez, eskolarekin”

“Eskolaz kanpoko ekintza antolatuen jolasaren bat-bateko indarra hiltzen dute”

“Bestelako aukerak eskaini behar dizkiegu, teknologia berriek adikzioa sortzen dutelako”



berrien kontra, eta atzera ere ezin dugula egin ulertu behar da. Kontua da zein leku hartzen duten haurren bizitzan: noiz sartzen diren, noiz hasten diren eta zenbateko lekua hartzen duten. Gizarteko joerari jarraitzen bazaio, inprobisatuz, eraman egiten gaitu. Izugarritzko indarrarekin bultzatzen gaitu, erabat inbadituz. Aldiz, horren kontziente baldin bagara, eta borondatea baldin badugu, borondate asko, aurre egin diezaiekegu. Olatuaren aurrean tinko egoteko borondatea. Lehendabizi helduaren borondatea, eta gero haurrena.

Haurrek borondate hori kontrola dezakete?

Helduak egon behar du hor. Ez “ezetz” esaten bakarrik, baizik eta alternatibak eskaintzen. Haur bat teknologia berririk ez dagoen espazio hezitzaile batean baldin badago, ez da horien faltaz konturatuko. Jolaserako objektu onak baldin badauzka,

jolaserako lagunak, naturan ibiltzeko aukera, mugitzeko askatasuna, erlaxatzeko aukera eta abar, horrela bizi baldin bada, ez du “pantaila nahi dut” esango. Orduan, “pantailarik ez” esaten bazaie, zerbait interesgarria eskaini behar zaie, beste aukera batzuk eman behar zaizkie. Esate baterako, etxean baldin badaude eta heldua haurrarekin egoteko moduan baldin badago edo ikusten den zerbaitetan lanean ari bada, bestelako aukerak sortzen dira. Zergatik da garrantzitsua hori? Teknologia berriek adikzioa sortzen dutelako.

Haur batzuk libre daudenean zer egin ez dakitela geratzen dira. Zergatik gertatzen da hori?

Libre jolas egiteko ohiturarik ez dutelako gertatzen da hori, ez direlako libre jolastu. Berez haurrek badute libre jolas egiteko gaitasuna, baina hasiera-hasieratik garatu behar da, praktikatu egin behar da. Bestela,

berrikasi egin behar dute. Eta nik hori ikusi dut. Haur eskola batean jolas libreari denbora ematea erabaki zuten: asteartetan 10:00etatik 11:00etara. Eta kaos bat izan zen. 5 urteko haurrak taldean jarrita egiten duten gauza bakarra borrokan aritzea izaten da, edo bestela erotu egiten dira. Astebeteko proba egin zuten, gero bi astekoa, gero hilabetekoa... eta azkenean ordubete horretan liburutegira joaten bukatu zuten.

Izan ere, jolaserako denbora asko behar dute, eta tarte luze batean. Pozik eta asetuta geratzeko, egunero gutxienez ordu t’erdi eta bi ordu bitartean ibili behar dute jolasean libre eta etenik gabe. Ez du balio ordu erditxo bat orain, beste ordu erditxo bat gero. Gainera, 5 urtetik aurrera egun batetik bestera bezperako jolasarekin jarraitzen dutela ikusten dugu. Atzoko jolasak gaur jarraitzen du eta bihar ere segituko du. Beraien lana izango balitz bezala da.

20 urte

elkarrengandik ikasten

hh

hik hasi

Udako Topaketak 2019 - Donostia

Urtalok 1 mahaingunak

Urtalok 2, 3 eta 4 ikasturak



Fitxaketa berria eta liburuak, pedagogia ulertuzko, behinola eraberrita, ulertzenaren beharrik. Honekuzan pedagogia eragile eta adibideren berraketa lanak dira. Haurak eta jende argentez geroz, urteak liburuak, eraberritatuak eta eragileak eta horien eraketa beharrik, jende eraketa, berraketa, eragile eta material berraketa. Haur eta jende profesionalen beharrik, eta geroz.

Informazio eta motibazio www.hikhasi.euz helbidean

ESPERIENTZIAK 1

IKASENPRESA

Lanbide Heziketako ikasleek badakite enpresak sortzen

Ikasenpresa, ikasi eta enpresa. Ikasketak eta lan-mundua lotzen dituen programa honek hogeituro urteko ibilbidea egin du, eta, aurten ere, zer emaitza izan dituen ikusi ahal izan zen otsailean, Eibarren ospatu zen VIII. Ikasenpresa Azokan. EAEko 81 Lanbide Eskolako 2.000 ikaslek erakutsi zituzten azokan euren produktuak, asmakizunak eta esperimentuak. Hiru karpa handitan banatuta, guztira 376 enpresa-proiektu aurkeztu ziren azoka-egunean.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Teknikaren bitartez erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetako ikasleei zuzendutako programa da Ikasenpresa. Hezkuntza-programa honen bitartez, ikasleek enpresa bat sortu eta martxan jartzen dute ikasgelan, horretarako behar diren jarduera guztiak aurrera eramanez: irudi korporatiboa, administrazioa, marketina, salerosketak eta abar. Horrela, produktu edo



zerbitzu errealak garatzen, ekoizten eta merkaturatzen dituzte. Merkataritza-harremanetarako, beste eskola-enpresa bat esleitzen zaie, eta bien artean egiten dituzte salerosketak; besteak beste, produktuen katalogoa bidaltzen diote elkarri, gero salerosketa egiteko. Daukaten berezitasuna zera da: hezkuntzako enpresak direla, hau da, ez direla benetakoak, ez dutela IFKrik. 2018-2019 ikasturtean, EAEko 5.400 ikaslek hartu dute parte, eta 889 ikasenpresa-proiektu sortu dituzte.

Azoka: produktu eta zerbitzuen erakusleihu

Ikasenpresa Azokak ikasleei euren produktuak edo zerbitzuak erakusteko eta saltzeko aukera ematen die. Mahaietan, katalogoak ikusten dira, produktuak uki edota dasta daitezke; tresna askotarikoak ikusteko eta probatzeko aukera izaten da, eta, nola ez, guztiari buruzko informa-

zioa eta xehetasunak emateko prest egoten dira gazteak. Horietako bi dira Lisa Aibar eta Yera Vega. Bilboko San Inazio auzoko **Elorrieta Errekamari lanbide-eskolako** ikasleok “Eskularru ikusezinak” promozionatzen dituzte. Kimikako erdi-mailako zikloa ikasi bitartean izan dute ideia: “Egunero babestu behar ditugu eskuak, eta batzuetan, egunean bi edo hiru eskularru erabiltzen ditugu. Kontsumo handia dakar horrek, eta, hori saihesteko, gel edo xaboi bat erabiltzea proposatzen dugu guk. Horrela, gure eskuak eta ingurumena, biak, babesten ditugu” azaldu du Yeraik. “Beste herrialde batzuetan, erabiltzen dute jada xaboi hori; hemen, oraindik ez. Horregatik, gure enpresaren egitekoa xaboi hori promozionatzea, ezagutaraztea eta merkaturatzea da”.

Iurreta lanbide-eskolako bost lagunek *Etxeon* arreta-zerbitzuko enpresa sortu dute. Hirugarren adineko

Hezkuntza-programa honen bitartez, ikasleek enpresa bat sortu eta martxan jartzen dute ikasgelan, horretarako behar diren jarduera guztiak aurrera eramanez.

pertsonentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat eguneroko jardueretan laguntzeko arreta eskaintzen dute: dutxatzeko, erosketak egiteko, eta abar. “Enpresa sortzeko, hainbat gauza pentsatu eta erabaki behar izan ditugu” azaldu dute. “Nola egingo dugun etxetara joateko garraio-zerbitzua, zer arreta eskaini, prezioak erabaki... eta konpetentzia ezagutu ere bai. Uste genuena baino konpetentzia handiagoa dago”. Etorkizuna izan dezakeen enpresa dela iruditzen zaie, baina dirua behar da, eta hori da zailena, gazteen iritzi.

Laudioalde lanbide-eskolako Alex Pellok eta Mikel Angulok *Farolux* izeneko farolaren proiektua aurkeztu dute azokan. “Eguzki-energia hartu, biltegitatu, eta gauez mugimendua detektatzen duenean pizten den farola da” dio Alexek. “Mugimendurik ez badago, itzali egiten da. Horrela, ez dago gau osoan piztuta, eta energia aurrezten da”. Elektrizitatearen zikloa ikasi dute, eta gai horren bueltan bururatu zitzaizen ideia. “Herriko farola guztiak gau osoan piztuta zeudela konturatu ginen, eta, gure ustez, ez da beharrezkoa” dio Mikelek. “Gainera, kable bidezko Elektrizitatea kontsumitzen dute denek. Alegia, instalazio elektrikoa beharrezkoa dute, funtziona dezaten. Guk, ordea, eguzki energiaren bidez pizten den farola proposatzen dugu, kablerik behar ez duena. Beraz, gure farola egokia da kablerik iristen ez den lekuan jartzeko, mendialdeko borda batean, esaterako”. Ideia garatu eta produktua egiteko ibilbidean,



Heziketa-zikloko 2. maila bukatu ondoren benetako enpresa bat sortu nahi dutenak *Urratsbat* izeneko programaz balia daitezke. Ikasketak amaituta, urtebeteko laguntza ematen zaie enpresa bat sortzeko.

farola bat egiteko prozesu osoa ikasi dute. Badakite produktu garestia proposatzen dutela, baina argi ikusten dute aldaketa egin beharra dagoela, energia berriztagarriak erabiltzeko.

Santurtziko San Jose Calasanz lanbide-eskolako boskote batek marketin eta publizitatea ikasi du, eta hainbat produktu sortu eta saldu dituzte: oihalezko poltsak, giltzatak, entzungailuentzako zorroak eta orri-markatzaileak. Gelako ikaskideek eta irakasleek emandako oihalekin josi dituzte, eta, ondoren, produktuak ezagutarazi eta saldu dituzte. “Publizitatea eta marketina ikasi dugunez, produktuak ezagutaraztea izan da gure lana. Horretarako, sare sozialak erabili ditugu batez ere. Instagramen eta Twitterren, produktu guztien argazkiak jarri ditugu”. Eskaera asko jaso dituztela diote, baina ez dutela enpresarekin aurrera jarraitzeko asmorik. “Asko saldu dugu, baina etorkizunerako ez dela produktu ona ikusten dugu. Une honetarako bai, ideia ona izan da, baina horretan geratuko da”.

Hernani Lanbide Heziketako Endika, Ane eta Xabierrek ez dute bukatutzat ematen euren esperientzia. Fabrikazio mekanikoko diseinua ikasi dute, eta birziklatzeko zaborrontzi bat diseinatu dute, baina berezitasun batekin: herri edo enpresa baten identitatearekin lotuta dagoen zaborrontzia. “*3Eko* izena jarri diogu gure enpresari, eta zaborrontziak diseinatzen ditugu. Edozein herri edo enpresatik etortzen bazaizkigu

eta beren identitatea zein den esaten badigute, horren arabera diseinatzen dugu zaborrontzia, lau alderdi aintzat hartuta: organikoa, errefusa, papera eta plastikoa”. Hala, lanbide-eskola Hernanin dagoenez, handik abiatu dira lehen diseinua egiteko: “Errugbia indarrean dagoen herria izanik, eta atez atekoa duenez, errugbiko baloi itxura duen lau edukiontziko zaborrontzia diseinatu dugu” azaldu du Endikak.

Enpresaren egitekoa zaborrontziak diseinatzea da, eta ikasleek diseinatzen ikasi dute. Baina hori gero mekanizatu egin behar da; alegia, planotik produktu errealerara pasatu behar da. Eta egokitzapenak egin behar izaten dira hor. “Gerta liteke gure ideia ona izatea, baina fabrikatzeko garaian zailtasunak sortzea. Orduan, gure egitekoa da diseinua aldatzea eta produktua egiteko modua bilatzea”. Planoaren eta produktuaren arteko lotura behar dela konturatu dira, diseinatzailearen eta lantegikoaren arteko

harremana ezinbestekoa dela.

Ideiak arrakasta duela eta funtziona dezakeela ikusten badute, enpresarekin aurrera jarraitzeko asmoa dute. “Bada *Urratsbat* izeneko proiektu bat, eta, horren bitartez, eskolak aholkatu eta lagundu egingo liguke” diote gazteek. “Gai burokratikoak egiten, estatutuak idazten eta horrelako lanetan lagunduko liguke lanbide-eskolako irakasle batek, eta, horrez gain, eskolako gela bat utziko ligukete bulego gisa lehenbiziko urtean”. Hartara, ez dute diru-inbertsio handirik egin behar lehen urtean.

Tolosako lanbide-eskolako Markel eta Ikarok Informatika ikasi dute, eta *3 dimensionals* enpresa sortu dute, beste ikaskide batzuekin batera. Programa informatikoak eta 3D-ko inprimagailuak erabiliz, puzzle didaktikoak egin dituzte. “Berez, proiektuak, irekiak direnak, Internetik jaitsi ditugu, eta haiekin egin dugu lan. 3D-ko inprimagailuetan kargatzeko, tenperatura, dentsitatea



eta beste hainbat elementu neurtu behar dira, eta hori egiten ikasi dugu; inprimagailuek dituzten programa bereziak erabiltzen, alegia”.

Gabonen aurretik, 8-10 urteko umeentzako moduko puzzle didaktiko eder horiek saldu zituzten, baina enpresak aurrera jarraitzeko inbertsio handia egin beharko luketela aurreikusten dute: “Alde batetik, denda edo lantegi bat beharko genuke gure muntaia egiteko. Eta, bestetik, 3D-ko inprimagailuak erostea eta mantentzea garestia da”.

Ekintzailetasuna helburu

Enpresa bat sortzeko lana jartzen die Ikasienpresak gazteei, eta, horrekin, ikasleen ekintzailetasuna bultzatu nahi da. Enpresa bat sortzea zer den esperimintatzen dute, eta zer urrats egin behar diren ikasi. Aldi berean, norberak bere enpresa sortzea aukera bat izan daitekeela konturatzen dira. Azken finean, programaren helburua ikasleen hainbat kompetentzia gartztea da, langile eta profesional onak izan daitezen. Jon Labaka Teknikako arlo teknologikoko zuzendaria da, eta aspalditxotik ezagutzen du Ikasienpresa programa eta abantaila asko ikusten dizkio: “Esate baterako, irakasle gisa, gelan apunteak emanez esplikatu dezakezu zer enpresa mota dauden: sozietate mugatua, sozietate anonimoa, kooperatiba, lan-sozietatea eta abar. Edo esan: ‘Enpresa bat sortu behar duzue. Bilatu informazioa zer enpresa mota dauden, eta hautatu zuentzat egokiena dena’. Bigarren erak motibatu egiten du, eta hori da ekimenaren muina”.

Horrez gain, azokak beste dimentsio bat ematen du: bakoitza bere ikasketxean baldin badago, han egiten dena bakarrik ikusten du. Azokan, ordea, gainerako enpresak ezagutzeko aukera zabaltzen da. Bakoitzaren atzean dagoen jendea, ekimena, lana, sormena...

Aurtengo azokan ikusi diren 376 enpresetatik, askok ez dute jarraituko, ez dira enpresa bihurtuko. Baina heziketa-zikloko 2. maila bukatu ondoren benetako enpresa bat sortu nahi dutenak *Urratsbat* izeneko programaz baliatu daitezke. Ikasienpresa ikasketen barruan txertaturik dago,



eta *Urratsbat* hortik kanpo. Ikasketak amaituta, urtebeteko laguntza ematen zaie enpresa bat sortzeko. Zer motatako laguntza? Eskolan bertan gela bat uzten zaie bulego modura, eta hainbat tramite burokratiko egiten laguntzen die eskolako irakasle batek. Labakak dioenez, “2005etik hona 800 enpresa baino gehiago sortu dira *Urratsbat*-ekin, eta horietatik 750 inguruk bizirik jarraitzen dute. Urtero, 60 enpresa inguru sortzen dira. Txikiak dira, 1,5 langilekoak batez beste, eta, jarduera aldetik, denetik dago. *Urratsbat* ekimena oso ondo ari da funtzionatzen”.

Pausorik zailena Ikasienpresatik *Urratsbaterakoa* ematea dela dio Labakak. “Ideia bat izan dezakezu, baina jada zure denbora jarri behar duzunean... Kurioso da, baina, krisi garaietan, lan gutxi dagoenean, irtenbidetatik ikusten dute gazte batzuek. Aldiz, ikasketak bukatu eta lana baldin badaukate, irtenbide hau gogorragoa da; politagoa baina gogorragoa”.

Lan-merkatuaren beharrak

Lanbide Heziketako familia batzuetan, errazagoa da lan-munduan sartzea, eta beste batzuetan, zailagoa.

Baina Labakak beste gauza bat ere ikusten du: gazte falta. “Biztanleria zahartzen ari da. Dagoen egoerarekin, hazkunde handirik gabe eta lanpostu gehiago sortu gabe, ez daukagu nahiko gazte lanpostuetan erretira-

tzen den jendea ordezkatzeko. Arazo horrekin topo egingo dugula ikusten ari gara. Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, hasi da matrikula jaisten, eta jaitsiera hori Lanbide Heziketara ere iritsiko da, eta handik enpresetara”. Beraz, gazteak behar dira, ongi prestatutako gazteak. Eta ongi prestatuta egotea hiru ezaugarriekin lotzen du Labakak:

1. Ekintzailea izatea: enpresa baten barruan ekimenak, ideiak... sortzeko gai izatea.
2. Teknikoki maila ona edukitzea: behar handia dago ikasketa teknikoetan. Lehen, adibidez, zapatarriak prozesu osoa ezagutu eta egiten zuen. Orain prozesuak atal txikitari banatuta daude, eta atal horietako bakoitzerako, ezagutza handia eta sakona behar da: informatika, automatizazioa, kudeaketa, fakturazioa, nazioarteko kudeaketa... Jende askorekin egin behar da lan, eta beste kompetentzia batzuk sartzen dira hor: talde-lanean jarduten jakitea, entzuten jakitea, komunikatzen jakitea... Alderdi horiek garrantzi handia hartzen ari dira, benetan makinak ondo funtzionatu dezan.
3. Bigarren edo hirugarren hizkuntza bat jakitea, bidaiatzeko prestasuna edukitzea...

“Hiru ezaugarri horiek dituen pertsona batek lana badauka gaur egun” dio ziur Labakak.

ESPERIENTZIAK 1

BALOREAK CD-A

Giza balioak lantzeko abestiak eskura

Gaur egun gero eta gizarte indibidualistagoan bizi garela entzuten da behin eta berriz. Elkartasuna, auzolana, berdintasuna eta beste hainbat giza balio lantzeko beharra ikusten da, nabarmen. Eta saiakera ugari egin izan dira eskolan, etxean, aisialdiko taldeetan eta abar, bitarteko ugari erabiliz. Hemendik aurrera, beste baliabide bat gehiago izango da denon eskura: Baloreak proiektua (www.baloreak.org). Musikaren bitartez giza balioak Euskal Herriko txoko guztietara helarazteko proiektu berria da.

Musika eta giza balioak uztartu dituen esperientzia berri honen bultzatzaileak DeepScoda ekoiztetxeko kideak izan dira: Paxkal Etxepare Baionako soinu-ingeniarria, Joseba Razkin musika-manager eta ekoiztetxeko koordinatzailea, eta Pello Reparaz musikaria eta konpositorea. Azken bi horiek irakasleak dira, eta



ikusitakoak dituzte haurrekin giza balioak lantzeko esperientziak eta proiektuak. “Urteetan zehar, saiakera asko egin dira haurrengana giza balioak gerturatzeko, eta lortu duenik ere bada. Baina, gure ikuspegitik, ez erarik egokienean edo guri egoki iruditzen zitzaigun moduan”, dio Pello Reparazek. “Giza balio horiek kutsu erlijioso edo politikoetatik landu izan dira sarritan, eta gu hortik aldentzen eta era askeagoan jorratzen saiatu gara proiektu honekin. Kutsu horietatik aldentu, eta beste ikuspegi bat eman diegu giza balio horiei”.

Ikuspegi hori emateko, hiru elementu baliatu dituzte: musika, haurrak eta giza balioen inguruko hausnarketa. Emaizta zortzi abestiko musika CD bat izan da; baina askoz ere gehiago da proiektua: “Proiektu musikal

zabala da. Hilabete asko pasatu ditugu lanean bai guk, bai haurrek, bai gurasoek, bai horiez gain inplikatu den jende mordoak ere. Eta bere osotasunean, ez da musika soilik, haurrekin eta haurrentzat sortu dugun proiektua da, giza balioak jorratzeko xedearekin”. Hala, lan honek duen berezitasun handiena giza balioak jorratzeko modua izan da. Abestiak haurren esperientzietan oinarritzen dira, eta horrek ematen dio zeharkako kutsua benetan.

Hasteko, casting birtual bat egin zuten haurrak aukeratzeko, eta hortik abiatu ziren Euskal Herriko hainbat herritako 8-14 urte bitarteko bost haurrekin: Netsanet baionarra, Kaiet getariarra, Iradi bilbotarra, Luna berriozartarra eta Asier iruindarra.

CDak dituen zortzi abestietako hiru

Pello Reparazek sortu zituen erabat, eta gainerako bostak ere bai, baina haurrekin izandako elkarrizketetatik abiatuta. “Bost haur horiek elkarrikeria batzuk izan dituzte Skype bitartez beste herrialde batzuetako haurrekin” azaldu du Joseba Razkinek, ekoiztetxeko koordinatzaileak.

“Kontaktuan jarri ginen munduko bost herrialdetako txikiekin, musika-eskolen, ikastolen eta beste erakunde batzuen bitartez. Horrela, Kanada, Katalunia, Korsika, Mexiko eta Mendebaldeko Saharako beste bost txikik hartu zuten parte proiektuan. Oso une politak bizi izan genituen elkarrizketa horietan. Oso era naturalean, giza balioen inguruan hitz egiten hasten ginen, eta umeei euren ikuspegia eskatzen genien, aurretiazko lanketa batean aukeratutako hainbat giza balioen inguruan. Herrialde eta kultura desberdinak izan arren, oso antzekoak ziren txikien ikuspegiak giza balio horien inguruan. Haien esperientzietatik abiatuz, gogoetak azaleratzen zituzten. Kaietek, esaterako, Mexikoko Diego ezagutu zuen, eta gauza ederrak esan zituzten berdintasunari buruz. Adibidez ‘desberdinak izatean berdinak gara’, zioen Kaietek. Desberdin izatea polita dela zioten biek, eta, hain urrun egonda ere, berdinak zirela”.

Elkarrizketa horietatik tiraka, azkenean, gehien aipatu diren balioak zerrendatu dituzte: nortasuna, erantzukizuna, elkartasuna, ausardia, berdintasuna, umiltasuna, jarraikitutasuna eta maitasuna. Hortik abiatuta sortu ditu Reparazek gainerako bost abestiak. Eta haurren eztabaida eta gogoetatik harago, hainbat elkarrekin ere ideiak kontrastatu dituela erantsi du Reparazek; besteak beste, Eraikiz kolektibo feministarekin, Chrysallis-ekin eta SOS Arrazakeriarekin. “Hitzak ikusi, eta ekarpen baliotsuak egin dituzte, eta horrek aberastu egin du proiektua”.

Azkenean, *Baloreak* diskoko kanta bakoitzak giza balio bati egiten dio erreferentzia, eta haur bakoitzak balio horietako bati buruz abesten du. Bai Skype bidezko uneak bai grabaziokoak une ederrak izan dira, eta sekulako esperientzia izan da bost haur horientzat.

Balioak

Nortasuna: norberak garatu duen izaera edo jatorriz markatuta duena erakusteko harrotasuna.

Erantzukizuna: zerbait egin ondoren nork bere gain hartu beharreko karga, ona edo txarra.

Elkartasuna: denon arteko laguntasuna eta elkarri laguntzea.

Ausardia: beldurra diogun zerbaiti aurre egiteko indarra.

Berdintasuna: desberdin izatea garrantzitsua da, horrek egiten baikaitu berdinak.

Umiltasuna: nahiz eta gauza garrantzitsuak eta politak egin, denon lanak eta gauzak errespetatzea.

Jarraikitutasuna: gauza politak egiteko etengabe egiten dugun esfortzua.

Maitasuna: begiradetan eta une politetan pizten dena.



Proiektuak jarraipena du

Euskal Herriko haur askoren ahotan entzuten dira CD honetako abestiak. Eta horrez gain, proiektua zuzenean ezagutzeko aukera ere badute. “Ongi etorri gunea” proiektu ibiltaria presatu dute eta hara eta hona ibiltzen hasiak dira; besteak beste, Urdai-baiko ekoetxean eta Euskal Eskola Publikoaren jaian izan dira. Aurrera begira, beste hainbat tokitara joateko asmoa dute. “Gune honetara hurbiltzen denari proiektuaren nondik norakoak lehen pertsonan kontatzen dizkiogu, eta aldi berean, txikienak giza balioen inguruan hausnartze- ra gonbidatzen ditugu” azaldu du Razkinek.

Bestalde, **datorren urteko urtarri-laren 7an lehen kontzertua eskainiko dute Bilboko Arriaga antzokian.**

Ikastetxeetan ere gaia lantzeko beharra ikusten dute egileek, eta giza balioak lantzeko materiala sortu nahi dute. Baina ohiko prozeduretatik haratago joan nahi izan dute materiala prestatzerakoan. Zerbait berritzaileago eta gertuagokoa egin nahi dute,

beste modu bateko lanketa bat, azken finean. Horrela, topaketa batzuk presatu dituzte eta horietan sortzen den feedback-etik egingo dute materiala. Oraindik data eta tokia zehaztu gabe badituzte ere, topaketaren egitura finkatuta dute eta Razkinek eman dizkigu xehetasunak: “Topaketa horietan zortzi mahai-inguru planteatuko ditugu. Mahai-inguruetan Baloreak taldeak landutako zortzi giza balioen inguruko hausnarketa berritzaile eta hezitzaileak proposatuko dira. Mahai-inguru bakoitzean dinamizatzaile batek testuinguru ezberdinak planteatuko ditu helburu batekin: giza balio bakoitza ikuspegi berriekin lantzeko proposamen eta ideiak sustatzea. Azkenik, topaketei amaiera emateko zortzi pertsona publiko elkartuko ditugu eta bakoitzak giza balio baten inguruko 10 minutuko hitzaldi motz bat emango du”. Mahai-inguru sortzaileak eta irekiak izango dira, ez bairik gabe, eta nahiz eta irakasleei eta ikasleei zuzendutako deialdia izan, edozeinek izango du parte hartzeko aukera.

EKARPENAK

FILOSOFIA ETA LAN-MERKATUA

Filosofo izan nahi dut handitzean

“Iritsiko al da eguna robotek gizakiak ordezkatzeko dituztena?” Andy Kelly. “Erabaki al duzu zer ikasi behar duzun?”. Oinazea sortzen diegu nerabeei behin eta berriro galdera hori bera eginez, baina funtsezko galdera beste bat da gaur egun, etorkizun ekonomiko duin samarra bermatuko dien erabaki bat hartzea bada helburua: “Pentsatu al duzu zertan izan zaitezkeen gaur egungo robotak baino hobea?”



EKAI TXAPARTEGI

EHUko Filosofiako irakaslea

adimentsuagoak. Aurreko adibidearekin jarraituz, zaldiak ordezkatu zuen auto horrek ez du gidaririk behar, adibidez. Eta badirudi gero eta hurbilago dugula salgaien eta pertsonen garraioa gidarien beharrik gabe egingo den eguna.

Robot garraiolariak, esaterako, herrialde bateko langileen % 3 desagerraraz dezake kolpe batez.

Automatizatzea, digitalizatzea eta robotizatzea

Automatizatzea, digitalizatzea eta

robotizatzea bereizi behar dira. Hiru prozesuek xede bera duten arren eta ekoizpena areagotzen duten eta kostua murrizten duten arren, desberdinak dira, eta hainbat modutan eragiten dute lan-merkatuan.

Automatizatzeari esker gertatu zen industria-iraultza. Kasu horietan, pertsonak makinarekin batera lan egiten du. Helburuak, estrategia eta pentsamendua gizakiak jartzen ditu, eta makinek gizakiaren lana arintzen dute, errutinaz eta lan errepikakorraz arduratzen baitira. Ludditen iraultza izan zen “komunitatearentzat kaltegarri” ziren makinaren kontrako erresistentzia-mugimendu ezagunena, 1811. urtean Ingalaterran gertatu zena.

Gure belaunaldiak, berriz, digitalizazioa bizi izan du, eraldaketa digitalak bultzatuta. Edozein gasolina-zerbitzугunetan ikus dezakegunez, digitalizazioak lanean jartzen du bezeroa. Hornigailuan ordenagailu txiki bat txertatuz, bezeroak gasolina hartu, ordaindu eta alde egiten du. Gasolina-zerbitzугuneez ez dute langilerik behar, bezeroek egiten baitugu haien lana. Digitalizazioak lanpostu horiek desagerrarazi ditu, eta bankuetako eta supermerkatuetako kutzazainak ere desagerraraziko ditu laster.

Baina orainaldi berria robotizatzeak zehaztu du. Lana ez dute makinistek edo bezeroek egiten, robotek baizik. Eta bakarrik egiten dute lan.

Gu baino hobek

Gailu teknologikoak desiraren eskutik sartzen dira gure etxeetan,

Europar, makinek aspaldi ordezkatu zituzten animaliak lanean. Automobilaren bat-bateko agerpenarekin, adibidez, zaldiak desagertu egin ziren errepideetatik. Zaldiek “galdu” egin zuten, eta errekontzako motorrak irabazi zuen. Eta galtzeak zera esan nahi du, 1915. urtetik 1960. urtera bitartean, zaldien kopurua 22 milioitik 3 milioira murriztu zela.

Bien bitartean, makinek bilakera izan dute. Orain, robotak dira; esponentzialki konplexuagoak eta

baimenik eskatu gabe. Sakelako telefonoak, tabletak eta *gadgetak* izan nahi ditugu gure inguruan; izan ere, horrelako edozein gailuk bikain egiten du irakatsi zaion hori.

Perfektuak dira domeinu jakin baten berariazko zereginak etengabe errepikatzen. Gailuek ez dute egunean 8 ordu lo egin behar. Ez dute hanka sartzen, ez dira ezertaz ahazten eta ez dira kexatzen. Eta, garrantzitsuena, gero eta merkeagoak dira.

Zenbait pentsamendu-eremu gizakiok baino hobeto garatzen dituzte robotek, hala nola kalkulatu, informazioa prozesatu edo problemak ebatzi. Adibidez, ezinezkoa da xakean haiei irabaztea. Aukeraren bat izateko, partidaren aurretik tontotu egin behar ditugu, eta horrela lor dezakegu gure maila berean “pentsa” dezaten.

Ezin gara robotekin lehiatu. Robotak izanik, gu baino askoz ere hobeak dira.

Hezkuntza profesionalizatzailea

Ez al gaitu horretara eramaten gaur egungo hezkuntza-ereduak, hots, makinekin lehiatzera? Zer da, bada, espezializazio gero eta handiagoan oinarritutako hezkuntza-sistema hau, gizakiak robotizatzeke saiakera ez bada?

Espezializatzea lanbide jakin bat perfektu izateko gauzatzeko gaitzea da. Baina robotak horretarakoxe daude, errutinazko zeregin berezi eta errepikakor horiek perfektu izateko. Beste zer ekarpen egin dezakegu guk?

Benetan pentsatzea edo emozionalki inplikatzeko eskatzen ez duen lanbide oro robot batek garatuko du laster. Ez dago atzera egiterik. Robotizatzeak dakarren arriskua handitzen denean, lan horren balioa debalatu egiten da, eta lanbide horri dagokion prestakuntza espezializatua zentzua galtzen hasten da.

Horregatik, milaka master eta espezializazioen unibertsitateak atzoko munduari erantzuten dio gehiago, industrializazio modernoari, gure orainaldi teknologikoari baino. Hezkuntza profesionalizatzailea eraginkorragoa izango da, pertsonaren robotizatzearen bidetik jarraitu



beharrean, pertsonaren humanizazioa sustatzen badu, filosofiaren, literaturaren, arteen edo kulturaren bitartez.

Filosofikoki lan egiten irakastea

Egia da oraindik enpresek profil teknikoak eta espezializatuak bilatzen dituztela, une honetan balia garriak direlako, argi eta garbi. Ez dituzte filosofoak, artistak, idazleak edo poetak bilatzen. Baina lehentasun horiek aldatu egingo dira. Izan ere, aldatzen ari dira honezkerok.

Pertsona bakoitza bakarra eta ordezkazina da bere gizatasunean. Eta, hain zuzen ere, roboten bidez ordezkatzeko zailenak diren gaitasunak filosofiarekin lotutakoak dira. Galderak eta gogoeta egitea, adibidez. Gizakion portaera sakonkiago eta enpatiaz ulertzen saiatzea. Gure oraina kritikoki interpretatzea, bai eta gure sen ona ere. Idazten jakitea eta zintzotasun intelektualetik argudiatzen saiatzea. Gure harremanetan presentzia afektiboa irabaztea. Gure imperfekzioak onartzea eta akatsei, forma estetikoari eta sormenari tokia egitea. Gure askatasuna erabiltzea ezetz noiz esan behar dugun jakiteko, eta gure asaldurak bizimodu hobea go batekiko konpromiso positiboa adieraztea.

Kapitalismo neoliberalak pentsatu du abilezia filosofiko horiek guztiek ez dutela ezertarako balio, eta arriskutsuak ere izan daitezkeela profesional ona izateko. Hezkuntza-sistematik baztertu ditu, dimentsio bakarreko gizakiaren zenbait espezies sustatuz eta hezkuntza humanista

izateko desira zahar hori amets utopiko bihurtuz. Hala ere, gure inguru teknologikoan, gero eta robotizatze handiagorantz doan lan-merkatu berri honetan, edozein profesionalengan balioetsiko duguna haren gizatasuna izango da.

Hamarkada askotan, filosofiak bazterretan eta zoko estuetan biziraundu. Baina ez ote da jada bihurtzen ari premiazko baldintza ekonomiko hotz, gizarte osoari begira?

Robotetatik bereizten gaituena ez da perfektu izateko gauzatzeko gaitzea da, baizik eta egiten dugun hori zergatik egiten dugun. Horregatik, seme-alaba nerabe bat baldin baduzu, galdetu hau: “Pentsatu duzu jada zer gizaki mota izan nahi duzun?” Bizia salba diezaiokeen galdera da.

“Gure inguru teknologikoan, gero eta robotizatze handiagorantz doan lan-merkatu berri honetan, edozein profesionalengan balioetsiko duguna haren gizatasuna izango da”

EKARPENAK

EDUKIAK ERREPIKATZETIK EZAGUTZAK SORTZERA

Agurtzane Martinez: “Ikaskuntzarako esperientziak diseinatzen jakin behar du irakasleak”

Ikaskuntza Erraztea eta Berrikuntza Masterra (LIT) izeneko formazioa sortu berri du Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateak Teamlabs Ikaskuntzarako eta Berrikuntzarako laborategiarekin elkarlanean. Master ofiziala da eta haren xede nagusia da ikastetxeetan zein organizazioetan gauzak egiteko, pentsatzeko eta ikasteko modu berriei behar bezala erantzuteko gai izango diren profil profesionalak prestatzen hastea. “Ardatza ikaslea izanik, irakaslearen egitekoa da ikasleari lagun egitea bere ezagutza propioa sor dezan, komunitateetan parte har dezan eta garapen osoa osasuntsua izan dezan”.



Gizartea aldatzen ari da, horrekin batera hezkuntza premiak ere bai. Etorkizuneko irakasleen formazioari dagokionez, HUHEZIn hausnarketan ari zarete etengabe eta aldaketak txertatzen ere badiharduzue. Nola prestatu behar dira etorkizuneko irakasleak inguruneak eskatzen dituen premia berriei erantzuteko? Gizartea oso azkar ari da aldatzen eta hezkuntzaren erronka giza garapen iraunkorra lortzea da, bai lokalki, bai mundu mailan. Unibertsitateak erronka sozial eta demokratikoei aurre egiteko ikerketa, komunikazio, gizarte eta hiritar gaitasunak sustatu behar ditu eta zehazki gure kasuan pertsonen aniztasunari eta prestakuntza-testuinguruei erantzuteko profesional gogoetasuak prestatu

behar ditugu. Etorkizuneko formazioaileek hezkuntza behar berrietara egokitzen jakin behar dute, beti egiten dutenaren hausnarketan oinarrituta eta beste praktika on batzuen ereduak aztertuta.

Horretarako, irakasleak ikertzaile gisa prestatu behar ditugu, ikuspegi berritzaile eta inklusibo batetik. Proiektuak diseinatzen, garatzen eta kudeatzen dakiten pertsonak formatu behar ditugu eta horretan saiatzen gara fakultatean.

Aspaldian entzuten da edukien transmisore huts izateak ez duela zentzurik gaur egungo errealitatean. Hortaz, zein da irakaslearen rola? Gure ustez irakasleak jakin behar du ikasle guztiei erantzuteko prozesuak

eta tresnak haien eskura jartzen. Alegia, ikaskuntzaren erraztaile izan behar du irakasleak. Eta, horretarako, ikaskuntzaren ardatza ezin da izan –orain arte izan den moduan–, gai jakin bat edo arlo bateko eduki zehatz bat. Baizik eta ikaskuntzaren ardatza izan behar da zelan lagundu ikasleei euren ezagutza propioa sor dezaten. Zentzu horretan, irakaslearen funtzio inportanteetako bat garapenerako testuinguruaren diseinua izango da.

Ikaskuntza esperientziak diseinatzeko jakin behar du irakasleak. Eta, diseinu horretan beti presente izan behar du aurrean dituen ikasleei lagundu behar diela. Prozesu, tresna eta material desberdinak jarri behar dituela ikasleen eskura, haiek ere diren horretatik garatzen joan daitezten.

Ikuspegi horrek eragin handia izango du irakaslegaien formazioa planifikatzerako orduan, ezta?

Bai, dudarik gabe. Eskoletako irakasleei eskatzen badiegu euren ikasleei prozesuak, materialak, tresnak jarri behar dizkietela eskura, eta testuinguru aberatsak diseinatu behar dizkietela bakoitzak bere ikaskuntza prozesua gara dezan, guk ere ezin dugu unibertsitatean arlo desberdinetako edukiak transmititzen jarraitu. Beraz, guk ere irakaslegaien formazioan kontuan izan behar dugu zelan erraztu dezakegun euren ikaskuntza prozesua, euren garapen propioa egiteko eta bakoitza bere ezagutza eraikitzeke gai izateko.

Eta hutsune hori betetzeko sortu duzue Ikaskuntza Erraztea eta Berrikuntza Masterra (LIT)?

Bai, hala da. Guk ikasleei lagundu egin behar diegu beraiek nahi duten hori sortzeko gai izan daitezen. Horretarako irakaslearen rola aldatu egin behar da, guztiz, eta hori da master honekin daukagun helburua: irakasleak egiteko beste modu batzuetan trebatzea. Horretarako, irakasleek euren ikaskuntza prozesua gizarte honek eskatzen dituen bezalako parametroetan egin, bizi eta esperimintatu behar dute. Ikaskuntza errazten duten prozesu horiek bizi behar dituzte euren azalean. Ezin ditugu modu batean formatu, eta gero

esan euren ikasleekin horrek ez duela balio eta beste era batera jardun behar dutela.

Unibertsitateak bertatik hasita irakaslegaiak prozesu eta material horiek erabiltzen trebatu behar direla diozu. Adibiderik jar dezakezu? Zer-nolako prozesuak izango dira? Zer-nolako materialak?

Momentu honetan denok oso garbi daukagu ikasleei eskaini behar zaizkien esperientziak emozionalteak izan behar dutela. Ikasle batek jakin-nahia baldin badauka, ikasle hori garatuko da, baina ikasle batek jakin-nahia izan dezan guk prozesu batzuk jarri behar ditugu martxan eta esperientzia batzuk eskaini behar dizkiogu. Bai unibertsitatean, eta bai eskolan. Hortaz, inportantea da adibidez guk jakitea zelan diseinatu ditzakegun ikasleentzako erakargarriak eta aberasgarriak izango diren erronkak.

Askotan esaten da erronketan oinarritu behar dugula ikaskuntza-irakaskuntza, baina erronka horiek ikasle bakoitzarentzat eta ikasle guztientzat izan behar dira erronka. Beraz, horretan trebatu beharko ditugu etorkizuneko irakasleak: zelan diseinatu ikasleentzat motibagarri izango diren erronkak? Eta, erronka horiei erantzuteko, zelango prozesua jarraitu beharko genuke? Horrek bete-betean bat egiten du proiektuen diseinuarekin. Eta proiektu bat ez da soilik diseinatzeko mahai baten bueltan jesarrita. Hau da, proiektuak diseinatzeko modu asko daude: tresna, dinamika, baliabide eta prozesu desberdinak erabil daitezke eta horixe esperimintatzeko eta bizitzeko bidea ireki nahi genuke masterrean.

Hortaz, gelatik haratago doazen baliabideez ariko ginateke?

Masterrean horretan sakondu nahi dugu. Garbi utzi nahi dugu ikasle guztien beharrei erantzuteko proiektu globalagoak behar ditugula, eta horiek ezin dira mugatu eskola eta geletako hormetara. Haratago ere joan behar dugu. Proiektu global horiek beti izango dira eskolatik kanpo dauden beste eragile batzuekin adostutakoak, koordinatutakoak

“Irakasleak ikertzaile izateko prestatu behar ditugu, ikuspegi berritzaile eta inklusibo batetik. Proiektuak diseinatzeko, garatzeko eta kudeatzeko dakiten pertsonak formatu behar ditugu eta horretan saiatzen gara fakultatean”

edo hitz egindakoak. Argi izan behar dugu ikastetxea ez dela hezkuntzako eragile bakarra eta gure helburua da tokiko hezkuntza proiektuak garatzen joatea. Horretarako, eskolan garatzen diren proiektuek ere eragina izan behar dute beraien komunitatean eta beraien herrietan.

Adibidez, eskolako umeei begira, erronka bat izan daiteke ingurunea txukunago mantentzea eta gutxiago kutsatzea? Horrekin, adibidez, proiektu bat egin ahalko litzateke?

Bai, baina lehenik argi izan behar dugu horretan guztian badagoela umea ikusteko beste modu bat: umea subjektu aktibo gisa hautematen da, hurrek ere euren ahotsa, iritzia, identitatea... dutela ulertzen da. Eta, irakasleak egiteko izango da ikasleei euren ikaskuntza esperientzia horiek diseinatzeko laguntzea.

Hortaz, zuk jarri duzun adibide horri lotuta, guk irakatsi beharko diegu ikasleei zelan egin daitekeen ikerketa txiki bat jakiteko kutsadura horrek zer esan nahi duen, zerk eragin duen eta zer ondorio izan ditzakeen; eta, horrekin lotuta, gure eguneroko bizimoduan zer alda dezakegun ohitura jasangarriagoak eta osasungarriagoak hartzeko, etab. Baina garrantzitsua da umeak ere gurekin batera ikertzaile bihurtzea.



Zeharkakotzat jotzen diren gaitasunak edo konpetentziak modu sendoagoan lantzea proposatzen duzue zuek, eta sormena, bizi osoan ikasteko gaitasuna, autonomia, besteekin bizitzen ikastea... aipatzen dituzue.

Masterrari egiten badiogu erreferentzia, ikasle denek, printzipioz, ez dute gauza bera ikasiko. Guztiek abiapuntu berbera izango dute, baina gero bakoitzak berak nahi duen ezagutza garatuko du. Zergatik? Guretzat master honetan inportantea delako bakoitzak bere barnean duen proiektuari erantzutea. Hortaz, guk hainbat elementu komun diseinatu ditugu zeharkako konpetentzia horiei erreferentzia egiten dietenak eta guztientzat baliagarri direnak. Horiek lirake lehen aipatu ditugun prozesu, tresna eta materialak, baina edukia ikasle bakoitzak nahi duen hori izango da. Ikasle bat etor daiteke eta immigrazioarekin loturiko proiektu bat martxan jar dezake; edota beste bat enpresa batetik etor daiteke, eta barneko formazioa eragingarriagoa izan dadin proiektu bat lan dezake, etab.

Hortaz, ikasleek master bera egingo duten arren, denek ez dute modu berean jasoko prestakuntza, eta formazioa bera ere ez da berbera izango denentzat.

Hala da, ikasleak espezializatu egin-

go dira master honen bidez, baina espezializazio hori pertsonalizatua izango da; alegia, ikasle bakoitzak egiten duen prozesuaren eta garatzen duen proiektuaren arabera. Hala ere, konpetentzia orokorrak lantzeko *workshopak* eta proiektua disenatzeko prozesuak berdinak izango dira guztientzat.

Eta horri erantzuteko dago masterra diseinatuta. Hainbat ziklo ditu. Batetik, ikasle bakoitzaren interesari erantzuten dion abiapuntua dago; bigarrenik, komunitatea eratzeke unea, ikasleek bizi beharko baitute taldearen prozesua eta zer den modu kolaboratibo batean lan egitea, beste batzuekin batera proiektua aurrera ateraz; hirugarrenik, proiektuaren beraren garapena dago, alegia, zelan diseinatzen diren ikerketarako eta berrikuntzarako proiektuak eta zelan sozializatzen diren komunitatean. Azkenengo honetan eta bakoitzaren proiektua elikatzeko ikasleek 13 materiatiatik 6 aukeratu beharko dituzte; bakoitzak bere proiektuarekin lotuta dauden haiek.

Proiektuaren beraren garapenean ikusten duzue zuek hutsunea.

Horretan gabezia dago, orain arte ere kulturalki irakasleei goitik behera eman izan zaielako gelan egin beharrekoa. Eta irakasleek goitik agindu zaien hori aplikatu dute. Duela gutxi, ordea, irakasleei eurek ere egin egin

behar dutela eta diseinuan parte hartu behar dutela eskatzen hasi gatazkie, baina horretarako formatu egin behar dira. Eta proiektuetan formatzea ez da bakarrik esatea zein diren proiektu baten faseak eta fase bakoitzean zer elementu sartzen diren. Horretarako proiektuen diseinuak eskatzen duen prozesua bizi behar da eta horrek irakasleei hezkuntzarekin konprometituta egotea eskatzen die.

Horretan eragitea dagokigu guri, eta irakaslegaiari erakustea posible dela, eta beste modu batera ere gauzak egin daitezkeela. Hezkuntza bizitzeko beste modu bat izango litzateke. Masterrarekin horixe bera lortu nahi dugu: profesionalak ere ikasteko beste modu batzuk bizitzea, ikaskuntzarako era berriak egon daitezkeela esperimintatzea, hala gero eurek modu horiek euren eskoletara edo beste erakunde batzuetara transferi ditzaten. Horrez gain, irakaste-ikaste proiektu horiek garatzen direnean praktika gogoetatsua beharrezkoa da hobekuntzak sartzen joateko eta hori ere bada hezkuntzan dagoen erronka, gogoeta partekatua egitea ekipotako partaide guztien ahotsak kotuan hartuta.

Nori dago zuzendua masterra?

Ikaskuntza prozesuetan murgilduta dabilen edonori. Irakaslegaiak edo irakasleak izan daitezke, baina baita enpresa edo bestelako organizazioetan formazio ardura dutenak ere. Bakoitzak egingo du bere bidea, baina argi daukagu ikasleak garatuko duen proiektua beti izan behar dela errealitatean oinarritua eta errealitatean zerbait aldatzeko balioko duena. Horrexegatik diogu masterrera datorrena konpromisoarekin etorri behar dela, alegia, konpromisoa izan behar duela hezkuntzarekin eta heziketa hobetzeko nahiarekin.

Izenburuak –LIT– ingelesezko hiru kontzepturi egiten dio erreferentzia: *Learn, Innovate, eta Teach each other*; alegia, Ikasi, Berritu eta Elkarri irakatsi. Eta Madrilgo Teamlabs-ekin lankidetzan antolatu duzue.

Bai, eta masterra semipresentziala izango da. Hau da, Online egiteko zati bat izango du; eta beste zati bat

presentziala ostiral eta zapatuetan Bilbon zein Madrilen izango dena. Baina hori guztia ikasleek aukera-tzen dutenaren arabera joango gara antolatzen eta moldatzen. Hizkun-tzen trataera ere modu naturalean egingo dugu. Online saioak euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez egiteko aukera izango dute, eta presentzialak taldean arabera egokituz joango gara.

Master berria denez, formatua ere berria da eta ikaskuntza esperientziala lehenetsiko duzue.

Gure ustez hori funtsezkoa da: ikasleek eurek lehen pertsonan bizitzea gero egingo duten hori. Ikerketek dioten moduan, irakasleek jada badute euren ezagutza praktikoa, esperientziaren bidez eskuratu dutena. Bestetik, berriz, gu gaude unibertsitateko ezagutza teorikoekin, baina ez dago modurik biak lotzeko. Oso zaila egiten zaigu ezagutza

praktikoa eta teorikoa uztartzea. Eta, nire ustez, horretarako moduak bilatu behar ditugu: ezagutza praktikoa hori elikatzen joateko eta egiten dugun hori zergatik egiten dugun argudiatzen ikasteko.

Eta, hori nola egiten da?

Praktikak izan behar du abiapuntua, hau da, bakoitzaren bizipenak. Eta hori beste teoria eta praktika batzuekin elikatuz joan beharko gara ezagutza sortzeko. Guk ez dugu uste unibertsitatean gehiago dakigunik; guk teoria daukagu eta eskoletan dihardutenek praktika. Beraz, helburua da bi arlo horiek uztartzen joatea eta irakasleak ahalduztea. Eurak ere kontura daitezten zelan garatu ahal diren profesionalki euren praktiketatik abiatuta.

Horretarako, aurrez, unibertsitateko irakasleok ere formatu beharra

izango zenuten, ezta?

Horretan ari gara. Master hau diseinatzen hasi ginenetik bi urte igaro dira. Lehen urtea geure formazioan igaro genuen, besteak beste, gu ere hemen praktikan jarriko ditugun prozesu eta tresnetan esperimendatzeko. Etengabe irakaskuntza gaurkotzen eta hezkuntza beste modu batean bizitzen ari gara. Bestelako prozesuak dira, askoz aktiboagoak, askoz konpartituagoak, askoz esperientzialagoak...

Aurrematrikula irekita daukazue jada. Non egin daiteke?

HUHEZIREn webgunean egin daiteke; zehazki ondoko helbidean: www.mondragon.edu/eu/unibertsitate-masterra-ikaskuntza-errazten-berrikuntzan. Informazio gehiagorako, berriz, 688 65 81 88 telefono zenbakira dei daiteke edota eescandon@mondragon.edu helbidera idatzi.

HAUR HEZKUNTZAKO

hezitzaileentzat formazioa (7. promozioa)

plaza batzuk geratzen dira oraindik

- 1. ikasturtea - 2019-2020 (3-5 urte). **EMMI PIHLER** pediatziaren oinarri teorikoa izango da jarraituko den Ffö pedagogiko nagusia. **ZÁRNETÁK, MUGIMENDU ASKIA, LOA, PARDEL ALGHNETA, JATORBUWA, SOZIALIZAZIOA**, eta abar landuko dira.
- 2. ikasturtea - 2020-2021 (3-6 urte). Hainbat pedagogia berritzaile eta eraklatzaile iragaritzaile dira: **LORIZ MALAGUZZI** eta Reggio Emilia, **RUDOLF STEINER** eta Waldorf eskola, **MARIA MONTESSORI**, Pedagogia Sistemikoa, Heziketa berdea, **REBECA** eta **MAURICIO WILD**...
- 3. ikasturteetako eduki praktikoa psikometereko alumnitateko **FORMAZIO PERTSONAL**arekin uztartuko da.

(3. ikasturteetarako edo lehen ikasturterako soilik egin behar da matrikula aurten)

Informazioa eta matrikula www.hikhasi.eus helbidean

GALDEIDAZU

FAMILIEKIN IKASTURTE HASIERAKO BILERA: NOLA EGIN “INTERESGARRIAGO” DENONTZAT?

Jakina da familien inplikazioak onura anitz dakartzala haurren heziketan; besteak beste, haurren arrakasta akademikoa bultzatzen du. Eta hori hala da, batez ere, haurra talde gutxitu batekoa bada edo gizarte-bazterketa arriskuan badago (Jeynes 2003).

Gaur egun, uste hau zabaldu da hezitzaile batzuen artean: guraso ugari ez diote arreta nahikoa eskaintzen seme-alaben hezkuntzari, eta, horregatik, ez dira eskolan nahiko inplikatzen. Gai horren inguruko ikerketek ondorioztatu dute gurasoek garrantzi handia ematen diotela seme-alaben hezkuntzari.

Zein dira familiak eskolan inplikatzeko zailtasunak?

Familiek eskolan inplikatzeko zailtasunak dituzte: eskolan inplikatzeko tradizio urria, gurasoek hezkuntza-sisteman bizi izandako esperientziak (guraso zein ikasle moduan), hezkuntza-sistemaren ezagutza falta, interes falta eta, noski, norberaren izaera eta faktoreak. Gainera, batzuetan, familiaren eta hezitzaileen arteko harremana falta izaten da, eta horrek eragina du pertenezia-sentimenduen faltan, helburu komunaren faltan eta parte hartzeko dauden moduen ezagutza faltan (Parra, García, Gomariz eta Hernández, 2014).


Talde gutxituetako familiek edo



gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden familiek zailtasun gehiago izan ditzakete arrazoi hauek direlata: haien egoera sozioekonomikoa, haien kolektiboen kontrako estereotipoak eta aurreiritziak, eskolako beste gurasoekiko harreman falta, desberdintasun kulturalak edo harrera-gizarteko hizkuntza ondo ez jakitea... Familia horien parte-hartzeak eskola benetan ekitatiboa izatea bultzatuko luke.

MARTA QUINTAS eta AMELIA BARQUÍN

HUHEZIKO irakasleak



Nola eragin dezakegu familien inplikazioan?

Hezitzaileok, hezkuntzako profesional garen aldetik, ikastetxeko familiekin harremana hobetzeko lehen urratsa egin behar dugu; eta, horretarako, hezitzaileen eta familien arteko harremanak hezkuntza-proiektuaren oinarritzko ardatz izan behar du (Collet eta Tort, 2017).

Hori lortzeko, berebiziko garrantzia dute hezitzaileak eta familiak interakzioan jarriko dituzten espazioek eta ekintzek, horien bidez elkar eza-gutzeko, onartzeko eta elkarlanean aritzeko aukera izango delako.

Helburu horrekin lotuta, *Educació Demà* talde katalanak ikasturte hasierako bilerak berriro diseinatzea proposatzen du, ikasturtean familien eta hezitzaileen artean izaten den lehen kontaktua horietan izaten delako eta etekin gehiago atera dakiekeelako. Lehenengo kontaktu hori egokia izateak txinparta moduan joka dezake eskolan inplikatzeko dauden beste modu batzuk eraldatzeko; eta hasieratik familien eta hezitzaileen artean erantzunkidetasunean oinarritutako harremana garatzeko modu bat da.

Gainera, gaur egun familiak biltzea lortzen duen parte hartzeko estrategia bat da. Familiek jarduerari abantailak aurkitzen dizkiotelako gertatzen da hori: informazioa jasotzea, onartuta eta babestuta sentitzea, seme-alabek ordu asko igarotzen dituzten espazioak eta egiten dituzten ekoizpenak ikusteko aukera izatea...

Horrek ez du esan nahi bilerek ahulguneak ez dituztela. Alde batetik, informazioa ematen duten bakarrak hezitzaileak dira gehienetan; familiek entzun egiten dute soilik, eta galdera eta iruzkin batzuk egiteko aukera dute. Partaideen arteko interakzioa ere ez da ohikoa. Bestetik, familia batzuei irudituko zaie bilerak aspergarriak direla eta haien edukia aurreikus daitekeela (formatua eta edukia askotan antzekoak direlako eskola batetik bestera).

Posible da, baina, bilerak berriro diseinatzea gabezia horiek kontuan hartuta. Adibidez, noranzko anitzeko komunikazio-kanal bihurtzeko. Bilerak birformulatzean, bestalde, erakargarri izan daitezkeen lortzea

erronka garrantzitsua da, familien parte-hartzea motibatuzko.

Nola diseinatu berriro familiekin egiten diren lehen bilerak?

Garrantzitsuena da eskola-komunitate bakoitzak haren testuingurura ondo egokitzen den irtenbide berritzaileak bilatzea eta horren arabera dagokien aldaketa egitea (*Educació Demà*, d.g.).

Berriro diseinatzeko prozesua aurrera eraman da Kataluniako zenbait ikastetxetan, *Educació Demà* taldearen laguntzarekin. Eta gaur egun baditugu Euskal Herriko eskoletan birformulazioaren hastapenetan oinarri gisa azter ditzakegun hainbat praktika interesgarri. Artikulu honetan, bide berri hori urratzen ari diren eskoletan gauzatu diren dinamika batzuk zerrendatuko ditugu, orientabide gisa erabiltzeko.

- **Familien iritziak jasotzeko dinamikak:** gurasoen, haurren eta hezitzaileen arteko batzorde bat era daiteke, bileren eraldaketa aurrera eramateko; batzorde hori izango da berriro diseinatzeko ardura izango duena. Batzordeak, bere funtzionamenduan, arrisku bat gainditu beharko luke: familien ordezkariak beren iritziak eta interesak azalratzea soilik (Vallespir, Rincón eta Morey, 2016).

Familia guztien iritziak jasotzeko estrategia bat postontzia da. Eskola barruan, mugimendu handiko espa-

Posible da familiekin egiten diren bilerak berriro diseinatzea, dauden gabeziak kontuan hartuta. Artikulu honetan bide berri hori urratzen ari diren eskoletan gauzatu diren dinamika batzuk zerrendatuko ditugu, orientabide gisa erabiltzeko.

zio batean, postontzia, paperak eta errotuladoreak koka daitezke gurasoek, hezitzaileek eta haurrek honako galdera hauei erantzun ahal izateko: *Ikasturte hasierako bileran, zer aldatuko zenuke? Egin proposamena* (azalpen labur bat txerta daiteke, komunitateak helburua eta ekintza ondo uler ditzan).

- **Familiak erakartzeko dinamika:** bilerak arratsaldeko 15:00etan egin daitezke, familiek eskola martxan ikusteko aukera izan dezaten. Ikasleak gelan ez dauden tarte batean egin daitezke bilerak, gela eta tutorea libre daudela ziurtatzeko.

Bestalde, ordua familiekin adostu daiteke. Planifikazioarekin hasi aurretik, familiei galdetegi bat bidal dakieke, haien ordutegien arabera aukerak zehazteko. Informazioa ja-



Dinamika horien guztien helburuak ez dira begi-bistatik galdu behar: komunikazioaren norabide askotarikoak sustatzea, familien parte-hartze aktiboagoa bultzatzea, familientzat (eta hezitzaileentzat) bilerak motibagarriagoak eta esanguratsuagoak izatea, familien arteko harremana bultzatzea eta kezkak eta hezkuntza-helburu komunak partekatzea.

sotakoan, etapa bakoitzeko hezitzaileek erabakiko dute zein den tarterik egokiena.

Bilerarako gonbidapenak ikasleek egin ditzakete. Gonbidapen horiek erakargarriak egiteko, estrategia ugari egon daitezke, besteak beste: hurrek hegazkin batzuk egitea eta etxeko postontzietan uztea, edo ikasleek bileraren inguruan dituzten igurikimenak orri batean idaztea eta orri hori familiei betetzeko eskatzea.

• **Hezitzaile taldea ezagutarazteko dinamikak:** familiek eskolako hezitzaile guztiak ezagutzeko, taldeko argazki bat proiektatu daiteke. Oso zaila da hezitzaile guztiak bilerara guztietara joateko aukera izatea; hori dela eta, interesgarria izan daiteke pantailan taldeko argazki bat proiektatzea eta tutoreak bakoitza nor den azaltzea. Eskola oso handia denean, etapa horretako hezitzaileen argazkia proiektatu daiteke. Argazki hori, norberaren izenarekin, gelako horma batean eskegi daiteke, edo beste toki batean, familiek ikusteko.

• **Espazioak ezagutzeko dinamikak:** familiek eskolako toki desberdinetan zer egiten den jakiteko gogoia izaten dute. Hori dela eta,

eskolako espazio bakoitzean gauzatzeko den ekintza bat jar daiteke abian. Adibidez, jolas kooperatibo bat antolatu daiteke, ikasleek gimnasioan erabiltzen dituzten materialekin.

Beste aukera bat LHko 6. mailako ikasleek eskolan zehar ibilbide bat antolatzea da, eta gune bakoitzean egiten dena familiei azaltzea. Azalpen hori euskarririk gabe edo horma-irudien laguntzarekin egin daiteke. Aldez aurretik prestatuko dituzte ikasleek horma-irudiak.

• **Helburu komunak partekatzeko dinamikak:** familiek elkar ezagutzeko dezaten bultzatzeko (eta helduak betiko ezagunen eta lagunaren artean ez biltzeko), taldetxoak zoriz sor ditzake tutoreak.

Hezitzaileek aurretik hainbat zeregin zehaztu ditzakete, familiak interakzioan jartzeko. Taldeak sortuko dira, zeregin kopuruaren arabera, eta zeregin bat eskainiko zaio talde bakoitzari. Egindakoa talde handian partekatuko da bileraren amaieran.

Tutore bakoitzak dagozkion familien interesak, prestutasuna eta igurikimenak ezagutzeko, orri bat betetzeko eska diezaieke. Orri horretan, familiek galdera batzuei erantzun beharko diete: *Eskolan zer egitera etorri nahi duzu? Zertan parte hartzen sentitzen zara eroso? Zer espero duzu duzu zure umearengandik?*

Hezitzaileok familien kezkak ezagutzeko tartea sustatu ditzakegu. Horretarako, post-it batzuetan zer jakin-min dituzten idazteko eska diezaiekegu familiei, jakin-min guztiak horma-irudi batean jaso eta gero talde handian azaltzeko. Kezka horien inguruan aritzeko bi modu daude: talde txikietan (gurasoen artean), edo talde handian (denon artean).

• **Gurasoekin oinarritzko informazioa partekatzeko dinamikak:** bilerak horrela planifikatuta, informazioa partekatzeko denbora gutxiago izango dugula jabetu behar dugu. Horren ondorioz, oinarritzko informazioa duen karpeta bat presta daiteke bileran banatzeko. Horrek ez du esan nahi bileraren parte bat ez dela baliatu behar informazio esanguratsuen

partekatzeko.

Dinamika horien guztien helburuak ez dira begi-bistatik galdu behar: komunikazioaren norabide askotarikoak sustatzea, familien parte-hartze aktiboagoa bultzatzea, familientzat (eta hezitzaileentzat) bilerak motibagarriagoak eta esanguratsuagoak izatea, familien arteko harremana bultzatzea eta kezkak eta hezkuntza-helburu komunak partekatzea.

Eta ezin dugu ahaztu bilerak egin ondoren ebaluatu egin behar ditugula. Nahikoa izan daiteke galdetegi erraz bati erantzutea edo denon artean gure balorazioak partekatzea. Zein da ebaluazio horren helburua? Berriro diseinatzearen indarguneak eta hobekuntza-proposamenak zehaztea, eta ondo baloratu diren aldiak sistematizatzea. Egindako lanak jarraibidea izan behar du hurrengo ikasturteetan.

Bibliografia

- COLLET, J. eta TORT, A.: *Escuela, familias y comunidad*, Octaedro, Bartzelona, 2017. Octaedro.
- Educació Demà. (d.g.). *Redissenyem la reunió amb families*. Iturria: <https://educaciodemà.cat/crides/Families/redissenyem-la-reunio-amb-families>. Kontsulta-data: 2018-11-28
- JEYNES, W. H.: (2003). A meta-analysis the effects of parental involvement on minority children's academic achievement, *in Education and Urban Society*, 35(2): 202-218.
- LÓPEZ, I., RIDAO, P.; SÁNCHEZ, J.: "Las familias y las escuelas: una reflexión acerca de entornos educativos compartidos", *in Revista de Educación*, (2004), 34.
- PARRA, J.; GARCÍA, M. P.; GOMÁRIZ, M. A.; HERNÁNDEZ, M. A.: "Perfiles de participación de las familias españolas en los centros educativos", *in La participación de las familias en la educación escolar* (2014), 127-148. Madril: Secretaría General Técnica.
- VALLESPIRA, J.; RINCÓN, J. C.; MOREY, M.: "La participación de las familias en el Consejo escolar y la formación del profesorado", *in Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 19 (1), (2016), 31-45.


ARGITALPENAK



FRUITU ETA BARAZKI INBENTARIOA
Virginie Aladjidi / Emmanuelle Tchoukriel

PAMIELA

Kolorearen arabera sailkatuta, inbentario eder honetako fruitu eta barazkiak modu askotara agertzen dira: jatorria duten loreari loturik, landare jangarriak, fruituak, zurtoinak, erraboiak, sustraiak, haziak, hostoak, loreak... baita horien lehengaietatik ateratzen diren produktuak ere, hala nola tea, kafea, marmelada edo txokolatea.



JAKIN 231
Askoren artean

JAKIN

Bertsokak eta bertsoaritzak mundua dira aztergai Jakinen azken aldizkarian. Harkaitz Zubirik bertsoaritzatik begiratu dio kulturetzari. Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio bertsoariek *Bertsolaritzaren azterketa soziologikoa 2015-2018* ikerketako emaitzak aletu dituzte. Datuen atzean dagoenaz hausnartu dute.



PAULATXO
Askoren artean

ELKAR


Paulatxo gaixorik dago, oso larri, eta medikuak ezin du sendatu. Une latz honetan, hurbilekoak haren ondoan egon eta sufrimendua arintzen saiatuko dira. Paulatxo istorio hunkigarria da, hurrekin nahiz gurasoekin bizitzaren amaierako probaz hitz egiteko. 6 urte-tik gorako haurrentzako maitasunari eta atxikimenduari buruzko ipuina da.



ELKARREKIN HAZI
Nerea Mendizabal

AUTOEDIZIOA


Komunikazio Ez Bortitzean (KEB) oinarritutako liburu honetako lanabesek hazkundera sustatu nahi dute, giro emozional segurua lortu nahian, kide guztien beharrak kontuan hartu eta zainduak izango diren famili giroa sortzeko. KEBaren metodoan oinarrituta, prozesuaren ibilbidea modu erraz eta argian azaltzen da, elementu teorikoak ariketa praktikoekin uztartuz.



SUPERIKTUSTXOAK
Reyes Barrero

AUTOEDIZIOA

Hurrei heriotzaz eta gaixotasunez hitz egitea ezinbestekotzat dauka Barrerok eta hori dela eta argitaratu du iktusaren gaia lantzen duen liburua. Hurrek iktusak identifikatzen ikastearekin batera, hainbat ideia lantzen dira liburuan zehar; hala nola, gisa honetako gaixotasunak ekiditeko ohitura osasuntsuak hartzea zeinen garrantzitsua den. 8 urtetik gorako hurrei dago zuzendua.



110. BAT ALDIZKARIA
Askoren artean

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Bat soziolinguistika aldizkariaren 110. zenbakian arnasmuneen gaia izan dute hizpide. Horretarako, hainbat aditoren iruzkinak aurkitu daitezke zenbaki honetan, hala nola, Mikel Zalvide euskaltzaina, Kike Amonarriz soziolinguista edota Xabier Bengoetxe irakasle ohia. Arnasmuneak ardatz hartuta, euskararen gaurko eta biharko errokez hitz egiten dute egileek.

PROPOSAMENA

‘Gaztarri’ erakusketa Mailopecan

Juan Gorritiren erakusketa berriak ekainaren 8an irekiko ditu ateak

Mundua ekarri nahi izan du naturara Gorritik, ‘Gaztarri’ bere azken lanarekin. Egurrezko ehun pieza baino gehiagoz osatutako obra da, Cromlech gisara aterik gabeko galeria batean aurkeztua.



Ekainaren 8an irekiko ditu ateak Juan Gorriti artistaren erakusketa berriak. “Gaztarri” izenburupean, gazta eta harria elkartuz; gaztarekin Aralarko artzaina irudikatuz eta harriarekin Aralarko mendilerroa. Horrela, mundua ekarri nahi izan du naturara. Beti izan du abiapuntu Aralar. Hor daude, esaterako, *Aralar-Oihan Beltza* (Alemania), *Aralar-Itsasmira*

(Donostia, 2016) edota Galesen eta Londresen egindako erakusketak. Ibilbide horietan zehar beti Aralar eraman du mundura. Oraingoan, ordea, bestelako proposamen batekin dator: ikuslea Aralarrera bertara eraman nahi du. Mundua ekarri nahi izan du naturara, eta ikusleari leihoa ireki eta bertatik begiratzeko gonbita egin dio, “leihoa ireki behar baita mundua irekitzeko”.

Egurrezko ehun pieza baino gehiago bildu ditu Cromlech moduan, eta orain dela milaka urte gure arbasoek egin zuten lanaren jarraipenaren erakusle, zirkulu batean aurkeztu ditu, ikusleari ere zirkulu horretara batzeko deia eginez; artistak dioen moduan, “denok garelako bat”.

Cromlecharen ideiatik abiatuta, sasoi hartako pertsonaiak nolakoak ziren amestu, sentitu eta irudika-



tu du: Mailopetik ateratako izaki mitologikoen esanahiarekin sortuak izan diren zazpi lan aurkeztu ditu, pertsonaia gisara emana beroietako bakoitza. Aterik gabeko espazio batean jarri du erakusketa. Gaizka Zubizarreta irakasleak erakusketaren gainean idatzi duen legez, “dena Mailoan, aterik gabeko espazio batean kokaturik, ama lurrak sortzen duen guztiari omenaldi eginez; mai-suari, Mailoei, gu garen haiei”.

Ekainaren 8an hasi eta 23ra bitartean, hainbat kultur ekitaldi izango dira erakusketaren bueltan, Azkue mendi-ganean, Araizko bailaran. Bertan izango dira bertsolariak, pailazoak edota kantariak. Beraz, eskolatik bisitan joateko nahiz familiar egun-pasa egiteko leku aproposa izan daiteke, erakusketa ikusi eta Gorriti artistaren munduan sartu eta gozatzeaz gainera, aukera ematen baitu naturaz ere disfrutatzen.


Biografia apur bat

Juan Gorriti Goldazarena Oderitzen

(Nafarroa) jaio zen, 1942an. Baina Zubizarretak dioen legez, batez ere, mendian jaio zen, ama naturaren magalean, eta “mendiko haur baten historia da berea”.

Gorritirentzat natura da irakaslerik handiena, irakasle guztien irakaslea. Araitz bailarako airea, haizea, euri langarra, neguko goiz izoztuak eta udako beroak, euri ondorengo lurruna, suaren garrak sortutako usain gozoa... arnasten ditu artistak. Finean, natura arnasten du eta naturatik hats hartu.

Zubizarretak gogoratzen duen eran, “ikusi, sentitu eta egin” da Gorritiren leloa eta beti du leiho txiki bat bizitzari eta bizitzara irekia, “ireki, ikusi eta ikasi” egin behar delako. Naturak bere indarrez eta denboraren poderioz sortu duenaren jarraipena egiten du Gorritik bere obrarekin. Izan ere, bere lanetan naturak parte hartzen du, denborari igarotzen uzten dio; eta, hortaz, bere lana besteek egindakoaren segida bilakatzen da.



‘Gaztarri’ erakusketa Mailoan

Non: Azkue mendi-ganean, Araizko bailaran

Noiz: ekainaren 8tik 23ra

Egitaraua:

- **Ekainak 8:** 18:00etan irekiera ekitaldia Jon Mayarekin, “Peru Madalena / Gotzon Garaizabal Dos-B-1”-ekin eta Jon Martinek.
- **Ekainak 9:** 12:00etan Sustrai Colina eta Uxue Alberdi; eta 18:00etan Josetxo Silguero.
- **Ekainak 12:** 11:00etan Pirritx, Porrotx, Marimotots eta Txapas.
- **Ekainak 15:** 18:00etan Mikel Markez eta Esti Markez.
- **Ekainak 16:** 12:00etan Miren Amuriza, Alaia Martin eta Julio Soto.
- **Ekainak 22:** 12:00etan Gema Ines eta Lara Mitxelena batetik; eta Maddalen Arzallus eta Amets Arzallus bestetik.
- **Ekainak 23:** 12:00etan bertsolariak; eta 18:00etan Mikel Markez eta Esti Markez; eta “Peru Madalena / Gotzon Garaizabal 2d-1”.

ATZEKO ATETIK



ARCHU PEDAGOGIAZ

AURELIA ARKOTXA IDAZLEA

1 833ko Guizot legearekin hezkuntzaren alorrean egitura berriak sortu ziren Frantzian. Legedia berriaren arabera, 500 biztanletik gorako herrietan mutiko eskolak eraiki behar ziren (Guizot-ek ezin izan zituen neska-eskolak eraikiarazi). Programaren sintesia hau zen:

“Lehen mailako hezkuntza elementarioan, derrigorrez ikasi beharko dira moral-hezkuntza eta erlijio-hezkuntza, irakurketa, idazketa, frantsesaren eta kalkuloaren elementuak, pisuen eta neurrien legezko sistema”.

Ordea, lege berriaren aplikatzeak arazo handiak sorrarazten zizkion gobernuari. Nola irakats frantsesa “sasi-hizkuntzak” bezala kontsideratuak diren hizkuntzak mintzo dituztelarik haurrek, eta irakasleek pedagogia-tresneriarik, curriculumik, ez dutelarik?

Jatorriz zuberotarra den, eta Bordeletik 61 kilometrotara dagoen La Réole herrian maisu den Jean-Baptiste Archuk haur euskaldunak ditu gogoan: “Erran daute, arauz, Errearoaren 1833 eta 28-ko legeak zabaldu

duela muga berri bat ikhastarzunari, eta Uskal-herriko ikhaserazlek behar dutela bere eskolierer frantsesa erakutsi. Beharbada bai. Bainan nola erakhuts ahal diote? Eztute uskaldun eta franzes gramatikarik, eztute uskaldun eta franzes hiteztegirik”.

Archuk, haur frantsesentzat gehienik erabiliak 50 euskarara itzultzen ditu argitalpen elebiduna egiteko asmoarekin. Horrela da 1848an agertzen euskal ortografia-gomendioez, euskal gramatika sarreraz eta hiztegi elementuez hornitua den *Choix de fables de La Fontaine traduites en vers basques-La Fontainaren alegia berheziak* edizio elebiduna. Ezkerretik kokatzen delarik Lafontaineren frantsesezko jatorrizko testua eta eskuinetik berriz euskarazko itzulpena. Liburua printzipalki haur euskaldunei destinatua bada ere, euskara ikasi nahi duten frantses elebarrak ere balia dezakete. Liburua zabalik atxiki behar da mahai gainean haren elebiduntasuna operatiboa izan dadin. Ezkerretik eskuinera irakurri beharko lukete ikasleek, ezkerrean den jatorrizko frantsesezko testutik eskuinean den euskarazko itzulpena joanez

begiak. Baina haurrei frantsesa arrotza zaie eta imagina daiteke eskuinetik (euskaratik) ezkerrean (frantsesera) duela lan eginarazten erreintak. Ama hizkuntzatik ezezaguna den hizkuntzara eta alderantziz ere; arrotza den hizkuntzaren ulermenean aurreratzeko, geldialdiak, errepikak, maisuaren interbentzioak, ahozko gogoetak etab. ugariak daitezkeelarik. Aldiz, euskararik ez dakien frantses hitzun heldua ezkerretik (frantsesetik) euskarara dabil segur aski irakurtzen.

Archuk nonbait berak (ez La Réolen, noski) esperimentatu ote zuen bere liburuaren operatibotasuna? Beste irakasle baten bidez? Galdera airean dago.

Berantxago, ja inspektore edo ikuskari izanen delarik (1850-1877) bere xedea bukatuko du *Grammaire basque-française à l'usage des écoles du pays Basque par Jean-Baptiste Archu -Uskara eta franzes gramatika (1855)* publikatuz. Berantago 1855eko edizioa berriz ikusiko du, titulu honekin: *Grammaire bilingue française et basque-Bi mihiren gramatika uskara eta frantzesa (1868)*.

